

# Oikiako Dotrina (1759)

JOSEBA ANDONI LAKARRA  
EHU/UPV

## ABSTRACT

Here we publish the text of a translation of the Catechism of Astete into the dialect of Gipuzkoa, made in 1759 by Francisco Antonio Aguirre, the parish priest of Oikia; the text has remained practically unknown to scholars of Basque, despite the appearance in 1905-1906 of the faulty first edition, published by Julio de Urquijo. We show that the general oblivion into which the text has fallen does not do justice to its great interest for the study of the dialectology and history of the language, and particularly for those researching into the influence of Larramendi and the constitution of literary Gipuzkoan (a subject that has started to receive more and more attention in recent Basque philological literature). The remarkable things about it are the number of first appearances of words not borrowed from Spanish, the use of derivative suffixes, and the influence of Eastern linguistic models, reinforcing the conclusions of Sarasola (1986) on the influence of Larramendi.

## Aurkezpen laburra

Ezagunegi ezin. Harako herrixka baterako aspaldian, zerbait behar eta, apaiz heldu berri batek «bere kontuko haurrentzat» apailatu dotrina itxuraz arrunta; kasu ezaguna, arrunta, euskal testuetan. Ez da harritzeko ere bere garaian inprimategitik ez igaroa: nago argitaratu zen bakoitzagatik hamar ilunpean geratu zela oraintsu ilki (edo ilkitzear jarri) arte; «Villafrancaco pueblo» hartakoa salbuespen dugu, ez usadio.

Egileek beren karguaren «obligacio pisuari eranzuteco quezcac» eraginik ipini ohi bazituzten ere ikasbideak, gerora bestelako grinak erakartzen ditu filologoak (gehienak bederen) testuotara. Horrela gu ere Oikiako dotrina hau hemen ematera.

Hain zuzen ere, Urquijo izan genuen aitzindari, duela larogeitik gora urte orain dakarkizuegun testua plazaratzen bere ehizaaldietariko baten ondoren (honako hau Bidanian harrapatu omen) *Revue de Lin-*

*guistique et Philologie Comparée*<sup>1</sup>. Inor gutxi ohartu bide zen, ordea, aldizkaria bera ere ez bait zen ororen eskumenean alde hauetan. Badut beraz —ene burua zurrizko baino ez bada ere— zioen bat eginak berregitean. Ez da sendoena noski. Era honetako bere lehen lanetarik zelako edo, Urquijorena ez zen atera ezein ikertzaile erretxin asetzeko eta lasaitzeko moduan. Huts asko da hor; irakurketazkoak bat edo beste, jauziak han edo hemen eta, bereziki, arrazoi(tu) gabeko aldaketak (txistukarrietan batez ere)<sup>1a</sup> dexente: *deseo* ezabatua (2), *sanctificatua* (3), *erortcen* (3), *egun* [eguin] (4), *Christo* (5), *Cristoren* (5), *faltso* (6), *entzutea* (6), *zaspigarrena* (7) *Irrugarrena* (7), *Atiña* [Miña] (10), *Hirugarrena* (10,11), *iru* (11,18), *Sanctuari* (11), *Bederatzigarrena* (12,13), *izendatuac* (13), *batasunean* (13), *hartan* (14), *hill* (14), *baitgaitzala* (16), *infernuu* (17), *berar* (19), *edultcen* (20), *daguizquianac* (20), *ola* (21), *differenteac* (22), *Mundic* (23), *entendimendutic* (23), etab. Luzeegi —eta ez interesgarri ez beharrezkoegi— deritzogu guztien zerrenda egiteari eta beki irakurleak saiatu garela inorengan salatuatarik begiratzen eta oharren bitartez gaztigatzen gaztigagarri iruditu zaiguna: eskuizkribuaren hutsak, egilearen aldaketak, gure zalantzak eta gainerako xehe-tasun lagungarriak irakurle zuhurrarentzat<sup>1 bis</sup>.

Delako euskalki edo hizkera baten ordezkari den aldetiko garrantziaz landa (ez dira Nafarroa aldekoak deskribakizun bakarrak) hizkuntzaren historiatikoa, hobe, literatur hizkuntzaren historiatik datorrena, du dotrina honek. Bestetan aritu naiz<sup>2</sup> XVIII. mendearen 2. aldera gipuzkera idatzian agitu zen (eta handik hedatu zen) aldaketaren etorkiaz. Ibon Sarasolaren hitzez esateko «ia erabateko eraberritze hori ez dagokio soilik hiztegi-alderdiari. Hizkuntzarekiko jarrera orokorra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erderaren mendeko eta morroi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko baliabideei begira jartzen saiatzen hasi da euskal idazlea»<sup>3</sup>. Hori bait da go mailebu gordinen ezabatzearen, kultur hitzak euskal erroez eratzearen, atzizki sistemaren erabilera areagotzearen, gainerako (batez ere iparraldeko) euskalkietan ziren hitzak norberarenean peitu zirenean erabiltzearen, eta idazkera txukunagoari buruzko beste hainbat urratsen ostean.

Bada horrelakorik gure testuan. Goragotik zetorkion *negarrezco valleco* (4) bezalakoak oso bakan gertatzen dira *adividea* (1), *sarrera* (2), *deserrituoc* (3), *aguinde* (4), *jaungoicotasunari* (4) *guizontasun* (4), *bi-debaguecoric* (6), *neurribaguecoan* (8), *viciera* (8), *cequentasuna* (8), *gueieguizalea* (8), *naguitasuna* (8) [eta kontrako bertuteak], *jaungoicoarequicoac* (9), *aalmen* (10), *ecinpadeciquizuna* (10), *onguroa* (11), *bea-*

(1) RLPc 1905, 249-272 eta 1906, 45-67, 102-120, 164-176; orobat, liburu gisa, Librairie Orientale et Américaine, E. Guillmote editeur, 1906, 77 or. Biak ikusi ahal izan ditugu Urquijo liburutegian.

(1a) Irakurlea aurki konturatuko den legez, noiz frikaria, noiz afrikatua darabiltza egileak morfema berarekin; orobat *h-/ø*.

(1 bis) Oharretan A. = Azpian, Or. = orijinala.

(2) ASJU 1985-1 eta 1985-2ko lanetan.

(3) «Larramendiren eraginaz eta» ASJU XX-1 (1986), 203-215; aipua 205.or.

*tztopa* (13), *erremediatzalle* (14), *bitartecotasun* (14), *onguite* (15), *azaldea* (15), *iraupena* (15), *illcorra* (16), *arrazoizco ezaguerara* (18), *izate* (19), *icasvide* (22) eta beste hamarkada anitzen aitzinean<sup>4</sup>. Jaungoikoa-  
ren zernolakoa ere larramenditar erara (Larramendik beretartu Mendibururenak<sup>5</sup> bainoago esango nuke) demaigu: *Da esan eta gogora al-ditequean baño gauzaric garaiago ta miragarriagoa. Jaun bat neurri gawe ona, podorotsua, jaquintsua, justua, ontasun gucien assiera, ta iraupena ematendiena, ta acabuera edo fiña* (22); urruti dira Otxoak eta Irazutak.

Gutxi da egileaz dakiguna berak liburuaren hasieran dioenez landa: «J.S.M.J./Christavaren Doctrina/ Aita Astete, ta bestte/ jaquinsu batzuetatic,/ bere Contuco aurrezat,/ ateraa, ta Componduzuena,/ (alde artaco ondo cequitenen/ usariora (*Oyquiaco valleco/ Vicario D.<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> Antonio Agui/rrec 1759<sup>n</sup> Urtean*». Deitura bera ere buruhausteturri suertatzen da: eskuizkribuan guk *Aguerrec* irakurtzen dugu argiro -e-kin (eta horrela egin bide zuen Urkixo liburutegian eskuizkribu hau toki idorogaitzean eta Urquijoren argitalpenari buruzko inongo aipamenik gabe katalogatu zuenak ere)<sup>6</sup> nahiz eta Urquijok *Aguirrec* eman. Nolanahi ere egile hauxe ta berau dugu Oikian erretore aritu zena 1759tik 1805eko uztailaren 27an zendu arte<sup>7</sup>:

El día veinte y siete de julio de mil ochocientos y cinco murió en la Casa Vicarial de Oiquina, de edad de setenta y cinco años cumplidos, (habiendo recibido la Santa Unción) Don Francisco Antonio de Aguirre, Vicario de esta parroquia: su cuerpo se enterró día veinte y ocho en esta parroquia de Oiquina: testó ante Antonio Fran<sup>co</sup> de Echeverria escribano numeral de la villa de Zumaya y en fé de todo firmé como servidor de dicha Iglesia. Fr. José Antonio de Ezeiza.

Urquijoren ustez jaio ez bide zen Oikian egin, hango elizliburuetan ez bait da kausitzen haren sortzearen berririk, diren Aguirretarrenak ez bait zaizkio egokitzen. Ez dakigu, bada, nondik Oikiara zen han ia mende erdiz erretore izan baino lehen<sup>8</sup>.

Don Juliok Aguirre hau liburuzale zela ere erakutsi zigon: berak erosi Echaveren liburuaren («obra hoy rarísima») ale batean «De D.<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> Ant<sup>o</sup> de Aguirre Vic. de Oiquina» bait zekarren, eta are gehiketa interesgarri hau ere, «Quéjase el vascuence de su hijo Garibai, natural de Mondragón»<sup>9</sup>. Urquijok ez markatu arren Aguirrek *Eliçara Erabilitceco liburuaren* hasieratik hartu bide zuen horra ekartzeko: *Burlatzen*

(4) Oraingo honetan soil soilik testua eman arren bildua dugu Larramendiren euskarazko zatien, Peñafloida, Gandara, Olaechea, Araquistain, zenbait poesia... eta garai bereko beste labor batzuekin batera, testu honen hiztegia; hara igortzen dugu, bada, irakurlea iruzkin zabalago baterako.

(5) Hots, Burgosko dotrina famatu bezain ezezagunak. Eskumenean du orain irakurleak; ik. *ASJU* XX-2 (1986) 533-594.or.

(6) Sinadura zb. 4722; inprimatua 2638. Batak 210×148, besteak 225×140.

(7) Hori dela eta Aguirre bezala ezarri dugu testuan Urquijorekin.

(8) Bidenabar, diodan etorkia ezagutzeak ez ligukela testuaren hizkeraz asko argituko; liburuetan (batez ere Larramendirenetan, baina ez bakarrik, ikusiko denez) ikasitako gehiegi dago horretarako.

(9) Baita Arrasaten leize famatu bat «... con cristalizaciones etc. y mucho, y esquisito Bol-arménico» zela ere (*apud* Urquijo 2.or.).

*naiz Garibaiez,/ bai halaber Etchabez,/ zeñak mintzatu baitire/ erdaraz  
Eskaldunetz./ Ezen zirenaz geroztik,/ Eskaldunak hek biak,/ Eskaraz  
behar zituzten/ Egin bere historiak. Diodan, amaitzeko, Eliçara...ren  
hegoaldeko zabalkundeaz berri haboro ez izan arren, Araquistainek  
(hau ere Larramenditarra) Noelak ezagutzen —ez beti ulertzen— zi-  
tuela<sup>10</sup>.*

(10) Ikus Antonio Unzueta «Fray José de Jesús María Araquistain» *ASJU* XIX-1 (1985), 199-215, eta zehatzago 21.or. eta oh. eta 2. oharrean aipatu 1.ko lana, batez ere 31-34.or.

[1]

J. ✠ S. M. J.

Christavaren Doctrina Aita Astete, ta bestte jaquinsu batzuetatic, bere contuco aurrenzat, aterraa, ta componduzuen, (alde artaco ondo cequitenen usariora) Oyquiaco Valleco Vicario D<sup>n</sup> Fran<sup>co</sup> Antonio Aguirrec. 1759<sup>n</sup> urtean.

## IRACURLEARI ADIVIDEA

Nere obligacio pisuari erantzuteco quezcac ta Jaungoicoari emanbearnaizan onezzazco contuac, Ipiñierazodit icasvide au aurrenzat nere experiencia laburrean; aubaño obeto ezarriac gure euscaran badira; baña bacoitza aditcenda bere itzquerara. Ecer servitcenbadizu, valia zaite ta ezperen barcatu nere deseoa, ta nigatic Jaungoicoari escatu.

[2]

## AVISOA PECATARI GUCIENZAT

1.<sup>a</sup>

Utsi ezazu becataria  
len baño len becatua  
aparta zaite ocassiotic  
Ceñean zauden sartua.

2.<sup>a</sup>

Izanditeque gaurco gabeen  
zure oean illtcea;  
baita ere biar baño len  
Infernuetan sartcea.

3.<sup>a</sup>

Larga dizagun vicio aec  
Ceñac gauzcaten galduric;  
eta escatu Jaungoicoari  
barcacioa vertatic.

4.<sup>a</sup>

Liburu onetan esatendana  
Sinistu eta obratu;  
goza dezagun beti gloria  
An gaitezen descansatu.

## CHRISTAU DOCTRINAREN SARRERA EDO INTRODUCIOA

Christau fiel gucioc  
gaude obligatuac  
Gurutcea adoratcera  
eta ari devocio izatera:  
Cergatic Christoc an  
Erredimitu guinduan  
gure becatuetatic  
ta etsaiaren mendetic:  
Argatic zaite jarri  
Santiguatcera Sarri  
Baita ere cñatcera  
Iru gurutce eguitera

Becoquian lenena  
Aoan Bigarrena  
bestea bularretan  
iru lecu oetan  
Becoquian libratceagatic  
pensamentu gaiztoettatic  
Aoan libratceagatic  
itz gaiztoetatic  
bularretan libratceagatic  
Obra ta deseo gaiztoetatic  
Eguizu bada bereala  
Esaten dezula onela:

1.3-4. Aguirrec: Ik. hitzaurreko gaztigua.

1.5. ADIVIDEA: Azpian -b-.

1.7. icasvide: A. -b-.

2.1-9. Bertsoon iruzkinerako ik. I. Seguroa, ASJU XIX-1, 194-7.

{ J S M J }

Christavaren Doctrina

Alta Astete ta beste

Jaquinsu batuetatic,

bere Contuco auzamzat,

Atercaata Componduzuenca

(alde artaco ondo Ceguitenen

usaxioa) Oyquiaco Valleco

Nicacio D. Juan Antonio Toue-

nec 1759<sup>m</sup> Urtean.

Iracurleari aditidea

Nere obligacio puruan Erantzuko quircac ta Jain-  
goicoari emanbea nuzan onerazco. Coituac, Spimerazodit  
icarbide au auzamzat nere Esperuenca laburteari au  
bano obeto Erariac gure Erariac badirac bano bacortza  
aditenda bere itaquenac. Ezer Sevitenbadirac valiat  
Zaita ta Ezperen bantatu nere desera, ta nigacio Jain-  
goicoari Escatu.

Otorduetan utaro beardu bacoitzac Eracustendamer

Cristavaren Ancio badu bedicatu, ta Taungoicorri  
Egueniac Emen Ondoren.

Hill oro Sacramentu Santu Confessioa, ta Comuniocia  
ondo preteritac allegatu, bator ere Ama Virginaren  
Egunerac.

Emen Seguitcendina

Maleco bendiciora.

Loretoco Letaniac.

Uterac laguntzeco modua Angueruen oficioa.

Arquenic. Nere Cristau maitea. Esandana bat,  
Dama izango ez dezun moduan vitai; bada arguenac  
Cantatendu deseacenduzidan gloria.

Aha izandedilla

[3] Gurutce Santuaren + Siñaleagatic ... .. } Becoquian  
 Gure + etsaietatic ... .. } Aboan  
 Libragaitzazu + gure Jauna eta Jaungoicoa ... .. } Bularrean  
 Amen.

Aitaren, eta Semearen + eta } Becoquitic bularrera. Ezquerreco  
 Espiritu Santuaren izenean. Amen. } besa burutic escuiecora.

#### AITA GUREA CERUETAN ZAUDENA:

- 1.<sup>a</sup> *Lenengo escaria*. Santificatua izan bedi zure izena.
- 2.<sup>a</sup> Betor zure erreñoa gugana.
- 3.<sup>a</sup> Eguin bedi zure vorondatea nola Ceruan, ala lurrean.
- 4.<sup>a</sup> Egun iguzu guri gure egunoroco oguia.
- 5.<sup>a</sup> Eta barca zaizquiguzu guri gure Zorrac guc gueren zordunai barca-  
tzen dieztegun becela.
- 6.<sup>a</sup> Eta ez gaitzatzula utci tentacioan erorten.
- 7.<sup>a</sup> Baicic libragaitzatzu gaitzetic. Amen.

#### AVE MARIA

- 1.<sup>a</sup> *Lenengo alde*. Graciaz betea, Jauna da Zure-  
quin, bedeicatea zera zu andre gucien artean. } S<sup>n</sup> Gabriel
- 2.<sup>a</sup> Eta bedeicatua da zure Sabeleco frutua Jesus. } S<sup>ta</sup> Isabela
- 3.<sup>a</sup> Santa Maria Jaungoicoaren Ama; erreguezazu } Eliza Ama Santac  
gu becatarioc gatic oraiñ eta gure eriotzaco or-  
duan. Amen.

Ÿ.—Gloria Aitari, eta Semeari, eta Espiritu Santuari.

℞.—Lenzuan becela oraiñ, eta beti dembora gucien demboretan izan  
dezala. Amen.

[4]

#### SALVE

Erreguina Ama Misericordiazcoa; vicitza: gozotasuna: gure espe-  
ranza Salve.

Zure otsez gaude Evaren ume deserrituoc.

Zugana gaude suspirioz eta negarrez, negarrezco valle onetan.

Ea bada andrea, bitarteco gurea itzuli itzazu gugana zure begui  
misericordiazco oriec.

Eta deserri onen ondoren eracutsi iguzu Zure sabeleco frutu bedi-  
catu Jesus.

O chit Beraa! O Piedadetsua! O beti Virginia Maria gozoa!

3.12. *barca zaizquiguzu*: A. *barcat*.

3.14-15. *gaitzatzula, gaitzatzu*: A. *-azu-*.

4.1. SALVE: Or. *-ea, a* tatxatua ondoren.

4.4. *otsez*: A. *otzes*.

4.5. *Zugana gaude*: Gero erantsia.

4.8. *iguzu*: A. *-tzu*.

4.10. Or. *piadatsua*, cf. 13.12.



Erregu ezazu gugatic Jaungoicoaren Ama Santa! Eguin gaitean gure Jaun Jesu-Christoren esqueñien diña. Amen.

### CREDOA

Nic sinistendet Jaungoico Aita guciz podorotsu, Ceru, ta lurraren Criadoreagan.

Eta aren seme bacar Jesu Christo gure Jaunagan.

Ceña zan concevitu Espiritu Santuaren obraz eta graciaz Jaiozan Santa Maria Virginagandic.

Padecituzuan Poncio Pilatosen aguinde, edo podorio pean: izanzan gurutceficatua: hilla eta enterratua.

Jachizan Infernuetara: Irugarren egunean piztuzan hillen artetic.

Igozan Ceruetara, ta dago Jarriric Jaungoico Aita guciz podorotsua-  
ren alde escuitic.

Andic etorrico da viciac eta hillac Juzgatcera.

Nic siñistendet Espiritu Santuagan.

Dala Eliza Santa Catholica: Santuen Comunioa.

Becatuen barcacioa.

Araguiaren Erresurreccioa, edo piztutzea.

Eta betico vicitza. Amen.

[5] FEDEAREN ARTICULOAC DIRA AMALAU. LENENGO ZAZPIAC DAGOZQUIO JAUNGOICOTASUNARI: BESTE ZAZPIAC JESU CRISTO GURE JAUN ETA JAUNGOICOAREN GUIZONTASUN SANTUARI.

### JAUNGOICOTASUNARI DAGOZQUIONAC DIRA OEC

- 1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Siñistea Jaungoico guciz podorotsu bacar bategan.
- 2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Siñistea dala Aita.
- 3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Siñistea dala Semea.
- 4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Siñistea dala Espiritu Santua.
- 5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Siñistea dala Criadorea.
- 6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Siñistea dala Salvadorea.
- 7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Siñistea dala Gloria emallea.

### JESU CHRISTOREN GUIZONTASUNARI DAGOZQUIONAC DIRA OEC:

- 1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Siñistea Jesu Cristo gure Jaun ta Jaungoicoa guizona dan aldetic concevitu izanzala, Espiritu Santuaren obraz, eta graciaz.
- 2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Siñistea Jesu Cristo gure Jauna guizona dan aldetic

4.22. *Igozan*: A. -tzan.

4.24. *viciac*: A. *viciac*.

5.7-12. *Siñistea*: A. -n- eta gero ñ bihurtu.

jaiozala Santa Maria Virginagandic, Virginia zala, bere Seme Jesu Cristo jaiio baño len, jaiotcean, eta jaioezquero.

3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Siñistea, Jesu Cristoc guizona dan aldetic, padecitu zuala Passioa, ta Eriotza gu becatarioc salvatcearren.

4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Siñistea Jesu Cristo guizona dan aldetic jatsizala Limbora, ta andic ateracituala, bere etorreraren beguira edo zai, ceuden guratso Santu, ta justuen Animac.

5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Siñistea Jesu Cristo guizona dan aldetic hirugarren egunean erresucitatu, edo pitzuzala illen artetic.

6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Siñistea Jesu Cristo guizona dan aldetic igozala Ceruetara eta dagoala eseriric, Jaungoico Aita guciz podorotsuaren es-cuitic.

7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Siñistea Jesu Cristo guizona dan aldetic, Cerutic etorric dala viciac eta illac juzgatcera, esan naidu: Onai auda viciac betico gloria ematera cerren bere Mandamentu Santuac gordecituen: eta gaiztoai auda illai, betico pena gorde ezcituelaco.

[6] JAUNGOICOAREN LEGUECO MANDAMENTUAC DIRA AMAR. LENENGO IRURAC DAGOZQUIO JAUNGOICOAREN ONRRARI; BESTE ZAZPIAC PROXIMOAREN PROVECHUARI.

1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Jaungoicoa amatcea gauza gucien gañean.

2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Juramentu alperric ez eguitea Jaungoicoaren icen Santua gaizqui erabilliaz.

3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Jai egunac santu eguitea.

4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Gurasoac onratcea.

5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Iñor ez hilltcea.

6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Araguizco pecaturic ez eguitea.

7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Iñori ecer ez ostutcea.

8.<sup>a</sup> *Zortzigarrena*: Iñori falso testimonioric ez asmatcea eta gue-zurric ez esatea.

9.<sup>a</sup> *Bederatcigarrena*: Iñoren senar edo emazteric ez deseatcea.

10.<sup>a</sup> *Amargarrena*: Ez guticiatcea iñoren ondasun bidebaguecoric. Amar Mandamentu Santu oec datoz bitara. Lenengoa da, Jaungoicoa amatcea gauza gucien gañean, eta bera servitcea. Bigarrena, gueren proximuac gueroc becela.

ELIZ AMA SANTAREN MANDAMENTUAC DIRA BOST

1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Igande ta Jaietan Meza ossoa enzutea.

2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Urtean beñ guchienaz edolaric confesatcea, edo lenago illtceco peligruric, edo comulgatu bearric badauca.

3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Pazcua Garizumacoetan comulgatcea.

4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Eliz Ama Santac aguintcen duanean barautcea.

5.17. jaiozala: A. -tzala.

6.4. eta 6.17. gauza: A. -tza.

6.8. gurasoac onratcea: A. guratssoac onrratcea.

5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Amarrenac, ta Primiciac Jaungoicoaren Elizari ossoro pagatcea.

[7] *Obra misericordiazcoac dira amalau: zazpi espiritualac edo animari dagozquionac, eta zazpi gorporalac edo gorputzari dagozquionac.*

#### ESPIRITUALAC DIRA OEC:

- 1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Ezdaqianari eracustea.
- 2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Premian dagoanari conseju ona ematea.
- 3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Gaitzqui eguiten duana centzazea edo corregitcea.
- 4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Bidebaguecoac edo injuriac barcatcea.
- 5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Tristedagoana alegueratcea, edo consolatcea.
- 6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Gueren proximoaren naigabe, eta flaqueciac pacienciarequin eramatea.
- 7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Illac, eta viciacgatic Jaungoicoari erregutcea.

#### ZAZPI GORPORALAC DIRA OEC.

- 1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Eriac Visitatcea.
- 2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Gotsedanari jaten ematea.
- 3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Egarridanari edaaten ematea.
- 4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Catiboa errescatatcea.
- 5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Larrugorricoa estalcea.
- 6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Peregrinuari ostatu ematea.
- 7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Illac enterratcea.

#### ELIZ AMA SANTAREN SACRAMENTUAC DIRA ZAZPI

Lenengo bostac dira premiazoac edo bearrac artuz; edo deseo izanarequin artceco, ecin artu diranean: eta oec bague ecin salvaditeque iñor, uzten baditu naguitasunez edo mesprecioz: beste azquen biac dira vorondatezcoac.

- 1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Bateoa.
  - 2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Confirmacioa.
  - 3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Penitencia edo Confessioa.
  - 4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Comunioa.
  - 5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Oleacioa, edo Extremauncioa.
- [8] 6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Ordena.
- 7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Matrimonioa.

#### CONFESSIO GENERALA

Ni pecataria confessatcen nazaio Jaungoico guciz podorotsuari: Santa Maria beti Virginari: San Miguel Arcangelari: San Juan Bautistari:

San Pedro eta San Paulo Apostoluai: Santu guciai: eta zuri Aita, becatu eguindedala gueiegui pensamentuz, hitzez eta obraz: nere culpaz: nere culpa guciz andiz. Orregatic escatcendiot Santa Maria beti Virginari, San Miguel Arcangel, San Juan Bautista; San Pedro, eta San Paulo Apostoluai, Santu guciai eta zuri Aita erregutudaguiozula nigatic gure Jaungoico Jaunari. Amen.

### ACTU CONTRICIOCOA

Nere Jesu Cristo Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa; nere Criadore, Aita, eta Erredemtoorea; zu cerana izanagatic, ta cergatic amatcenzaitudan beste gauza gucien gañean, damudet viotz gucitic zu ofenditua, cerren aifñ ona ceran; ta artcendet propositu fermu eguiazcoa becatura ez berriz viurtceco; becatuaren bide edo ocasiotic alde eguiteco: Confessatceco, eta Confessoreac ematendidan penitencia cumplitceco. Escaintcendizut nere vicitza, obra, ta nequeac nere becatuen zorren alde- ra: ta confiatcen naiz zure Jaungoicozco ontasun ta misericordia neurribaguecoan barcatuco ditzazula zure Passio, ta Eriotzaco merecimentuac gatic, ta emango didazula gracia viciera berri bat eguiteco eta cerren amorio santuan eriotzaco orduraño irauteco. Amen.

### [9] PECATUEN BURU, ITURRI, EDO SUSTRAIAC DIRA ZAZPI

- 1.<sup>a</sup> *Lenengoa*: Sobervia.
- 2.<sup>a</sup> *Bigarrena*: Avaricia edo Cequentasuna.
- 3.<sup>a</sup> *Irugarrena*: Luxuria.
- 4.<sup>a</sup> *Laugarrena*: Ira.
- 5.<sup>a</sup> *Bostgarrena*: Gula edo gueiegui zalea.
- 6.<sup>a</sup> *Seigarrena*: Imbidia.
- 7.<sup>a</sup> *Zazpigarrena*: Naguitasuna.

### ZAZPI OEN CONTRA DAUDE ZAZPI VERTUTE

Soberviaren contra, humiltasuna.  
 Avariciaren contra, Liberaltasuna.  
 Luxuriaren contra, Castidadea edo Garbitasuna.  
 Iraren contra, Paciencia.  
 Gularen contra, Templanza.  
 Imbidiaren contra, Caridadea.  
 Naguitasunaren contra, Diligencia edo lasterera.

8.6. *guciai*: Or. *gucia*.

8.15. *gauza*: A. *-tz*.

8.19. *Escaintcendizut*: A. *Escancendizut*.

8.21. *ditzazula*: A. *ditz*.

8.22. *didazula, viciera*: A. *didatzula, vitciera*.

## ANIMAREN ETSAIAC DIRA IRU

*Lenengoa:* Mundua.  
*Bigarrena:* Demonioa.  
*Hirugarrena:* Araguaia.

## ESPIRITU SANTUAREN CONTRACO PECATUAC DIRA SEI:

*Lenengoa:* Animaren Salvacioaz etsicea.  
*Bigarrena:* Gairic eguin bague uste salvatcea.  
*Hirugarrena:* Egui ezagunaren contra jaiquitcea.  
*Laugarrena:* Besteren graciaren imbidia izatea.  
*Bostgarrena:* Becatuan gogortcea.  
*Seigarrena:* Azqueneco penitencia baguetasuna.

## [10] JAUNGOICOARI BENGANZA ESCATCENDIOEN BECATUAC DIRA LAU

*Lenengoa:* Gogoz eguindaco eriotza.  
*Bigarrena:* Naturalezaren contraco pecatu loaia.  
*Hirugarrena:* Ume zurz, ta alargun pobreac oprimitcea.  
*Laugarrena:* Necazari edo bearguilleari bere jornala ez pagatcea.

## ITSUTCEN GAITUEN BARRUNGO BURRUCAC DIRA LAU

*Lenengoa:* Potza.  
*Bigarrena:* Beldurra.  
*Hirugarrena:* Esperantza.  
*Laugarrena:* Miña edo Damua.

## ORACIO ONERACO GAUZAC DIRA LAU

*Lenengoa:* Piedadea.  
*Bigarrena:* Confiantza.  
*Hirugarrena:* Humiltasuna.  
*Laugarrena:* Iraupena.

## VERTUTE THEOLOGAL EDO JAUNGOICOAREQUICOAC DIRA HIRU

*Lenengoa:* Fedea.  
*Bigarrena:* Esperantza.  
*Hirugarrena:* Caridadea.

## VERTUTE CARDINALAC DIRA LAU

*Lenengoa:* Prudencia.  
*Bigarrena:* Justicia.  
*Hirugarrena:* Fortaleza.  
*Laugarrena:* Templanza.

## GORPUTZAREN SENTIDUAC DIRA BOST

*Lenengoa:* Beguiaquin ecustea.  
*Bigarrena:* Belarriaquin aditcea.  
*Irugarrena:* Abuaquin gusto artcea.  
*Laugarrena:* Sudurraquin usai artcea.  
*Bostgarrena:* Escuaquin uquitcea.

## [11] ANIMAREN AALMEN EDO POTENCIAC DIRA IRU

*Lenengoa:* Memoria edo Gogoa.  
*Bigarrena:* Entendimentua edo Centzua.  
*Irugarrena:* Vorondatea.

## AZQUEN GAUZAC DIRA LAU

*Lenengoa:* Eriotza.  
*Bigarrena:* Juicioa.  
*Irugarrena:* Infernua.  
*Laugarrena:* Gloria.

## GORPUTZ GLORIOSOAREN DOTEAC DIRA LAU

*Lenengoa:* Arguitasuna.  
*Bigarrena:* Ecinpadeciquizuna.  
*Irugarrena:* Agilidadea.  
*Laugarrena:* Subtileza.

## ANIMA GLORIATSUAREN DOTEAC DIRA IRU

*Lenengoa:* Claridadea, edo Arguitasuna.  
*Bigarrena:* Visioa edo Jaungoicoa ecustea.  
*Irugarrena:* Comprehensioa edo Jaungoicoa ezagutu edo aditcea.

CHRISTAVAREN VICITZACO DEMPORA GUCIA HIRU  
PUNTUTARA DATOR

*Lenengoa:* Obra onac eguin bearditu.  
*Bigarrena:* Nequeac padecitu.  
*Irugarrena:* Pecatuetatic aldeeguin.

HIRU PUNTU OEC ATRIBUITCENZAIE HIRU PERSONA  
DIVINOAI, AU DA:

Obra onac, Aitari.

Neque, pena, miñ, ta naigabeac eramatea Semeari.

Eta gracia ez pecaturic eguiteco, ta aietatic aldeeguiteco, Espiritu Santuari: beragatic beardiegu berai ondo eguiteco gracia escatu.

[12]       ESPIRITU SANTUAREN DOAIAC DIRA ZAZPI

*Lenengoa:* Jaquinduriaco Doaia.

*Bigarrena:* Entendimentuaren Doaia.

*Irugarrena:* Consejuaren Doaia.

*Laugarrena:* Fortalezaren Doaia.

*Bostgarrena:* Jaquinduriaren Doaia.

*Seigarrena:* Piedadearen Doaia.

*Zazpigarrena:* Jaungoicoaren beldurreco Doaia.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAC DIRA AMAVI

*Lenengoa:* Caridadea.

*Bigarrena:* Paquea.

*Irugarrena:* Animoaren Firmeza, edo Longanimidadea.

*Laugarrena:* Benignidadea, edo onguiroa.

*Bostgarrena:* Fedea.

*Seigarrena:* Continencia, edo moderacioa.

*Zazpigarrena:* Espirituco gozotasuna.

*Zortcigarrena:* Paciencia.

*Bederatcigarrena:* Ontasuna.

*Amargarrena:* Biguntasuna.

*Amaicagarrena:* Modestia.

*Amavigarrena:* Castidadea.

BIENAVENTURANZAC EDO ZORIONAC DIRA ZORTCI

*Lenengoa:* Zorionecoac espirituz pobre diranac, cerren oena izangodan Ceruetaco Erreinua.

*Bigarrena:* Zorionecoac bigun, edo mansoac, cergatic beretuco duen lurra.

*Irugarrena:* Zorionecoac negarguilleac cerren izangodiran alegueratuac.

*Laugarrena:* Zorionecoac justiciaren gose, ta egarri diranac, cergatic aseac izangodiran.

[13] *Bostgarrena:* Zorionecoac misericordiatsuac, cergatic aec irichi edo alcanzatuco duten misericordia.

*Seigarrena:* Zorionecoac biotz garvidunac, cerren Jaungoicoa icusiduten.

*Zazpigarrena:* Zorionecoac paqueotsuac, cerren Jaungoicoaren Semecendatuac izangodiran.

*Zortcigarrena:* Zorionecoac Justiciagatic perseguituac, cerren aena dan Ceruetaco Erreinua.

#### IZARE EDO MANDIRE SANTUCO ORACIOA

Jaun Jaungoicoa: zure Passioco Siñaleac utcinizquiguzuna Mandire Santu artan, ceñean bildua izanzan zure Gorputz guciz Santua Josef gurutctic eratsizuanean. Eguin eguiguzu arren, O Jaun guciz Piedadetsua! mesede, zure eriotza, ta obiaren vitartez eramateaz Erresurreccioco gloriara, nun viciceran, eta erreinatcen dezun Aita Jaungoicoarequin Espiritu Santuaren battasunean: Iruroc Jaungoico bat demboragucien demboran. Amen.

#### BECATU ARIN EDO VENIALAC BARCATCENDIRA BEDERATCI GAUZAREN VITARTEZ

*Lenengoa:* Meza enzuteagatic.

*Bigarrena:* Comulgatceagatic.

*Hirugarrena:* Confessio generalagatic.

*Laugarrena:* Obispoaren bendicioagatic.

*Bostgarrena:* Ur bedecatuagatic.

*Seigarrena:* Ogui bedecatuagatic.

*Zazpigarrena:* Aitagurea esateagatic.

*Zortcigarrena:* Sermoia aditceagatic.

*Bederatcigarrena:* Bularreco colpeagatic Jaungoicoari barcatcio escatcendiogula.

#### [14] MEZA ENZUTETIC ATERATCENDIRAN PROVECHU ANDIETATIC BOST

*Lenengoa:* Anima ta gorputzarenzat gracia gueitcea.

*Bigarrena:* Purgatorioan zordiran penac guchitcea aditcenduanac bere pecatuen damu contricioarequin.

*Hirugarrena:* Bere eguitecoetan ondo irtetea ta Jaungoicoagandic errazago mesedeac logratcea.

*Laugarrena:* Pecatuetatic aldeeguiteco eta vertuteetan acitceco languntasuna especiala.

*Bostgarrena:* Beatztopa, ta desgracietatic libratceco egun artan languntcea edo auxilioa.

13.12. *Josef:* sic; *gurutctic,* *piedadetsua:* A. *gurucetic,* *piadatsua.*

13.18. GAUZAREN: A. -tza-.

13.20. *comulgatceagatic:* A. -gace-.



## CONFESSIO ONA IZATECO BEARDIRAN BOST GAUZAC

*Lenengoa:* Concienciaren examiña.

*Bigarrena:* Becatuen Damua.

*Irugarrena:* Ez berriz becuratceco propositua.

*Laugarrena:* Pecatuac ossoro confesatcea.

*Bostgarrena:* Confessoreac ematen dion penitencia eguiteco gogoia; eta complitcea gueroz.

## FEDE, ESPERANTZA, ETA CARIDADEAREN ACTOAC

Nic siñistendet firmero, zu nere Jaungoicoa cerala, Aita Jaungoicoa, Seme Jaungoicoa, eta Espiritu Santu Jaungoicoa hiruroc eguiazco Jaungoicoa bacar bat; fiñgabe ona, jaquintsua, justua, guciz podorotsua, eta gautza gucien atsiera, eta bucaera.

Siñistendet, Nere Jesu Cristo Jauna, dala Jaungoico, ta guizon eguiazcoa, ta guizontasunean sortua izanduzala Espiritu Santuaren obraz, eta jaiozala Maria Virginagandic: padeçitu; ill; eta pizturic Ceruetara igozala; etorricodala Mundua juzgatcera, eta bitartean Aldareco Sacramentu Santuan eguiaz dagoala. Siñistenditut Eliza Ama Santac (ceñean fede eguiazcoa dagoan) Siñist dezadala aguintcendidan gucia, cerren berari ala aguertudion berorrec nere Jaungoicoa: eta Fede onetan vici eta ill naidet.

[15]

### ACTU ESPERANTZACOA

Esperatcendet zuc nere Jaungoicoa, zure Misericordia fiñgabecoarequin, zure Seme, eta nere erremediatzalle Jesu Christoren merecimentuac gatic, bere Ama Santissima Mariaren bitartecotasun, ta zure graciarequin eguitea asmo artcendedan obra onac gatic, barcatuco ditzquidazula nere becatuac eta emango didazula betico gloria.

### ACTO CARIDADECOA

Nic amatcenzaitut nere Jaungoicoa nere aaleguin guciaz gauza gucien gañean, cerren zu ceran fiñgabe ona, eta amorio gucien diña. Nere proximo, edo lagun urcoac zugatic maite ditut nere burua beçela; eta guciai barcatcendiet viotcetic edocein agravio ta atsecabe, zuri dizudan amorioagatic; baita ere barcacio escatcendiet iñori calteric eguinbadiot, ta prestnago viurtceco.

14.22. *guciz:* Or. -s.

14.26. *jaiozala:* A. -tzala.

14.30. *vici:* A. vitci.

15.8. *gauza:* A. gautza.

15.10. *becela:* Gero zerbait (s ?) c-ren gainean.

## ACTU CONTRICIOCOAZ VALIA ZAITE MODU ONETAN

Nere Jaungoicoa! Nere viotz guctic damudet zu ofenditua, ceralaco ain ona, ta cerren nere anima guctic maitezaitudan. Gaitz iritci, edo gorrotodiet nere pecatuai eta daucat asmo sendoa ez zu berriz ofenditeco secular. Vici bedi Jesus! Hill bedi becatua. Misericordia nere Jaungoicoa. Misericordia.

Nere Jaungoicoa: Siñistendet berorregan gueitubeza nere Fedea.

Nere Jaungoicoa: Esperatcendet berorregan sendobeza nere esperantza.

Nere Jaungoicoa. Amatcendet nere viotz guctic; iretcequi beza nere viotza berorren amorioan.

Nere Jaungoicoa. Damu det berori ofenditua: gueitubeza gueiago, ta gueiago nic berori ofenditutaco damua.

[16] Emanbezat bere gracia berori servi dezadan mundu onetan, ta gozadezadan eternidadean. Amen!

## ONDO VICITA GURE PECATUEN ZORRAC PAGATCECO EDO SATISFACIORACO EGUINDITZAQUEGUN GAUZAC DIRA IRU

*Lenengoa:* Barautcea, cergatic barauac ecitcendu araguaia, sugetacendu espirituari, ta exercitacendu obediencian.

*Bigarregoa:* Oracio eguin, cerren oracioarequin alabatcenda Jaungoicoa, escatcendiogu, libragaitzala gaitcetic; digula ona, onac izateco, ta batgaitzala bere vorondate guciz santarequin.

*Irugarrena:* Limosna bacoitzac alduan neurrian; cergatic Limosna [da] misericordiaren onguitebat ceñarequin, erruquiz, ta gogoz estaltcen ditugun lagun urco edo proximuaren premia, ta miseriac.

## [17] CHRISTAU DOCTRINAREN AZALDEA EDO DECLARACIOA, GALDETCEN, ETA ERANZUTEN DALA

Galdetcendet.—Norc eguincinduan?

Eranzutendet.—Jaungoicoac, Jauna.

G.—Certaraco?

E.—Beraren Magestadea ezagutu, amatu, ta servidezadan mundu onetan ta berarequin beti vicinadin Ceruan.

G.—Gautza sortuai norc ematendie iraupena, edo norc conservatcenditu?

E.—Jaungoicoac berac, Jauna.

15.14. -T tatxatua VALIAren ondoren.

15.18. *Vici:* A. *vitci*.

16.1. *Emanbezat:* -bi- ?, *serviren* ondoren -t ezabatua.

16.2. *goza:* A. *gotza*.

16.4. *DITZAQUEGUN:* -T- gero ezarria.

16.7. *exercitacen:* A. -*acen*.

17.1. *DECLARACIOA:* A. -*TCIOA*.

17.6. *servidezadan:* A. -*vitde*.

G.—Cerua, lurra, eta beste gauzac eguinbaño lenago nun cegoan Jaungoicoa?

E.—Bera beregan Jauna, oen bearric ez zuala.

G.—Jaungoicoa beti izanduda?

E.—Bai Jauna, ta beti izango ere da; ez asieraric du, ta ez bucaeraric du.

G.—Ta mundua eguinzuaneetic izanditu servitzari fielac?

E.—Bai Jauna banacac.

G.—Dituzun gorputz, eta animac badue asieraric?

E.—Bai Jauna Jaungoicoac emana.

G.—Cerequin eguinzuan Jaungoicoac guizonaren gorputza?

E.—Ludurrarequin.

G.—Ta certatic Anima?

E.—Ecerecetic Jauna.

G.—Bat illtcendanean gorputcez ala animaz illtcenda?

E.—Gorputcez; cerren anima ez da illcorra.

G.—Gorputcetic aldeeguitenduanean, nora dijoa Anima?

E.—Ez badauca batere becuric, ez da ere becatuen zorric dijoa zucen gloriara; baña egon arren Jaungoicoaren gracion bere becatu gucien zorra ez badauca ossoro pagatua dijoa Purgatoriora: eta becatu mortalean badago infernura.

### § 1.<sup>a</sup>

[18] G.—Ta zu Cristava cera?

E.—Bai Jauna, Jaungoicoari esquerrac.

G.—Cergatic diozu Jaungoicoari esquerrac?

E.—Cristau Catolicoa izatea dalaco Jaunaren doai guziz estimagarria.

G.—Nundic dezu Cristavaren icen ori?

E.—Cristo gure Jaunagandic.

G.—Cer esan naidu Cristavac?

E.—Cristoren guizona.

G.—Cer da Cristoren guizon izatea?

E.—Bateoan artutaco Jesu Cristoren Fedea daucan: ta bera amatu, ta servitceco esqueñiric edo ofrecituric dagoan personac ala eguita Jauna.

G.—Cein da Cristavaren Sinalea?

E.—Gurutce Santua, ta Charactera, baita ere Caridadea.

G.—Cergatic?

17.15. *asieraric*: A. *atsi*.  
 17.21. *eguinzuan*: A. *-tzuan*.  
 17.29. *zucen*: A. *zucen*.  
 18.4. *guziz*: A. *-s*.

E.—Cergatic gurutce Santuan erredimitu guinduan Jesu Cristoc; eta dan Cristo gurutceficatuaren ichura, edo imagiña, ta berari jarraitu beardiogun berarenzat Siñalatuac becela.

G.—Cembat modutara valiatcenda Cristava Siñale onezaz?

E.—Bitara Jauna.

G.—Cein dira?

E.—Ciñatcea, eta Santiaguatcea.

G.—Cerde Ciñatcea?

E.—Da escuico erpuruarequin hiru gurutce eguitea. Lenengoa, Becoquian: Bigarrena, Aboan: Hirugarrena, Bularrean, esatendegula: Gurutce Santuaren, etc., ta hitz eguitendegula gure Jaun Jaungoicoarequin.

G.—Cergatic Siñatcencera becoquian?

E.—Jaungoicoac libranazan pensamentu gaitztoetatic.

[19] G.—Certaraco Aboan?

E.—Jaungoicoac libranazan hitz gaitztoetatic.

G.—Certaraco bularrean?

E.—Jaunac libranazan obra eta deseo gaitztoetatic.

G.—Cer da Santiaguatcea?

E.—Da escuieco beatzbirequin gurutcebat eguitea, becoquitic bularrera, eta ezquerreco besoburutic escuicoraño, esaten degula: Aitaren ta hitz eguitendegula Trinitade guciz Santuarequin.

G.—Noiz valiatu beardegu Siñale onezaz?

E.—Obra onembat asitcendegun gucian; edo premia, tentacio edo peligururen batean arquitcen gueranean; batezere oitic jaiquitcean; echetic irtetean: Elizan sartcean; jateracoan, ta lotaracoan.

G.—Cergatic onembeste vider?

E.—Cergatic dembora eta lecugucietan darraizcun gueren etsaiac eta perseguitcengaituen.

G.—Cer etsai dira oriec?

E.—Animarenac: au da Mundua: Demonioa, eta Araguaia.

G.—Beraz badu gurutceac vertutea horien contra?

E.—Bai Jauna.

G.—Nundic du indar ori Gurutce Santuac?

E.—Cristo gure Jaunac gurutce Santuan bertan venzutucituelaco bere eriotzaren vitartez.

G.—Gurutcea adoratcean cer edo nola esango dezu?

E.—Adoratcen, eta bedecatcen zaitut, nere Jesu Cristo Jauna cergatic Gurutce Santuan erredimitu guinduzun, ni ta munduco guciac.

§ 2.<sup>a</sup>[20] CHRISTAU DOCTRINAREN ZATIAC. LAU GAUZA ARRAZOIZCO  
EZAGÜERARA ELDUTCEN DANEAN CHRISTAVAC  
JAQUIN BEARDITUANAC

G.—Cembat gauza jaquinbearditu Christavac ezaguera arrazoizcora eldutcendanean?

E.—Lau Jauna.

G.—Ceñ dira?

E.—Cer siñistu bearduan, cer escatu bearduan, cer eguin bearduan eta cer artu bearduan.

G.—Nola jaquingo dezu cer siñistu beardezun?

E.—Jaquiñarequin Credoan, edo fedeco articuloac: baña oec bacarric daquizquianac, jaquinbearditu Credoan dauden azqueneco bost articuloac; au da: Dala Eliza Santa catholica, ta beste onen ondorengo laurac.

G.—Nola jaquingodezu cer escatu beardezun?

E.—Jaquiñarequin Aita gurea eta Elizaco beste oracioac.

G.—Nola jaquingodezu cer eguin edo obratu beardezun?

E.—Jaquinarequin Jaungoicoaren legueco Amar mandamentuac, Elizaco bostac, ta amalau obra misericordiazcoac: ta nere estadu edo oficioco obligacioac.

G.—Nola jaquingodezu, cer artu, edo errecibitu beardezun?

E.—Jaquiñarequin Elizaco Sacramentu Santuac.

## [21] LAU GAUZA OEN AZALDE, EDO DECLARACIOA CHEATUAGO

G.—Nola jaquingodezu, cer siñistu beardezun?

E.—Jaquiñarequin Credoan, edo Fedeco Articuloac.

G.—Esazu Credoan.

E.—Nic siñistendet &.

G.—Esanitzazu Fedearen articuloac?

E.—Fedearen articuloac dira amalau &.

G.—Norc esanzuan Credoan?

E.—Apostoluac, auda Cristoc biralduac.

G.—Certaraco?

E.—Guri fedeco gauzac adieracitceco.

G.—Ta zuc, certaraco esatendezu?

E.—Cristau Catolicoaren fedea aitortceco.

G.—Cer da Fedea?

E.—Ecutsi ez guenduana Siñistea, aguertudiolaco Jaungoicoac bere Elizari, ta onec guri ala eracutsicendigulaco.

20.1 eta 4. gauza: A. -tza.

20.15. dezunen 3. letraren azpian bazen zerbait.

21.1. GAUZA: A. -TZA; DECLARACIOA: A. -TCIOA.

21.11. adieracitceco: lehendabizi adieracitceco, ondoren 2. t ezarri eta 1.koa kendu.

- G.—Ecusicenduan Jaiotcen, illtzen, edo Ceruetara igotcen?  
 E.—Ez Jauna.
- G.—Siñistendituzu Mis[t]erio oec?  
 E.—Bai Jauna Siñistenditut.  
 C.—Cergatic siñistendituzu?  
 E.—Cergatic Jaungoicoac aguertudiozcan Eliza Ama Santari ta onec guri ala eracutsitcen ditzquigun.
- G.—Cer gauza siñistendituzu Cristava ceran aldetic?  
 E.—Eliza Ama Santa Erromacoac Sinistendituan ta eracustendiztan guciac.
- G.—Cer gauza dira horiec?  
 E.—Fedeco Misterio guciac, batezere fedearen Articuloac Credoan dauden becela.
- [22] G.—Cer gauza dira Fedearen Articuloac?  
 E.—Gure Fede Santuaren misterioriq andienac.  
 G.—Certaraco dira Fedearen articuloac?  
 E.—Jaungoico gure Jaunaren, eta Jesu Christo gure erredentorearen ezaguera arguia guri emateco.
- G.—Cer edo nor da Jaungoicoa?  
 E.—Da esan, eta gogora alditequean baño gauzaric garaiago ta miragarriagoa. Jaun bat neurri gave ona, podorotsua, jaquinsua, justua, ontasun gucien iturria, gauza gucien assiera, ta iraupena ematendiena, ta acabuera, edo fiña.
- G.—Trinidad guciz Santua nor da?  
 E.—Da Jaungoicoa bera, Aita, Semea, eta Espiritu Santua, hiru persona diferenteac (esan naidu bata beste ez diranac) eta Jaungoico eguiazco bacar bat. Aita Jaungoicoa da, Semea Jaungoicoa da, Espiritu Santua Jaungoicoa da, eta orregatic ere hirurac Jaungoico eguiazco bacar bat dira.
- G.—Aita Semea bada?  
 E.—Ez Jauna.  
 G.—Espiritu Santua Aita, edo Semea bada?  
 E.—Ez Jauna.  
 G.—Cergatic ez?  
 E.—Cergatic irurac persona diferenteac diran, izan arren Jaungoico eguiazco bacar bat.
- G.—Hiru personac cergatic dira Jaungoico eguiazco bacar bat.  
 E.—Cergatic hirurac duten izate edo naturaleza bacar bat.  
 G.—Non dago Jaungoicoa?  
 E.—Lecu gucian; batez ere Ceruan, eta aldareco Sacramentu guciz Santuan.
- [23] G.—Jaungoicoa busti edo erre baditeque?  
 E.—Ez Jauna.

21.23. *ditzquigun*: Or. *dizt*.22.2. *misterioriq*: -q zerbaiten gainean.

- G.—Jaungoicoa beti izandu, eta izangoda?  
 E.—Bai Jauna ez dualaco izan asieraric ezta ere bucaeraric izango.  
 G.—Hiru persona Jaungoicozcoac beti izandu dira?  
 E.—Bai Jauna, eta izangoere.  
 G.—Aita inorgandic jaioa, sortua edo eguiñabada?  
 E.—Ez Jauna.  
 G.—Semea eguiña bada?  
 E.—Ez Jauna: Da bai, Aitaren centzuz edo entendimentuz engendratua.  
 G.—Espiritu Santua eguiña sortua edo engendratua bada?  
 E.—Ez Jauna.  
 G.—Nundic dator bada?  
 E.—Aita, ta semea gandic: baña ez jaiotzez, eguitez, sortcez, engendratces; ezta ere entendimentutic; ezipada bien vorondatetic.  
 G.—Hiru personen artean bada zarragoric, andiagoric, ta obeagoric?  
 E.—Ez Jauna, hirurac berdiñac dira.  
 G.—Jaungoicoa guciz podorotsuada?  
 E.—Bai Jauna, bada bere podorioarequin naiduan gucia nai uts ba-tequin eguitendu.  
 G.—Cergatic da Criadorea?  
 E.—Cergatic gauza guciac eguindituan ecerecetic.  
 G.—Cergatic da Salvadorea?  
 E.—Cergatic ematenduan gracia ta barcatcen dituan becatuac.  
 G.—Cergatic da Glorificadorea?  
 E.—Cergatic ematendion gloria bere gracion irautenduanari.  
 [24] G.—Cergatic da premiadorea edo Sariemallea?  
 E.—Cergatic eguitenditugun gautza on guciac pagatcendituan; ta gauza gaizto guciac castigatcendituan.  
 G.—Jaungoicoac gucia ecusten, ta ezagutcendu?  
 E.—Bai Jauna: ez zaio gauzaric chiquiena ere ezcutazen; ezda gure viotcen barrenen igarotcendana ere.  
 G.—Jaungoicoac badu guc bezela gorputcic?  
 E.—Ez Jauna: da Ispiritu vtsa.  
 G.—Jesu Cristo gure Jaunac badu gorputcic?  
 E.—Jaungoicoadan aldetic ez Jauna, cerren dan Ispiritu vtsa, baña guizonadan aldetic badu gorputza guc becela.  
 G.—Beraz Jesu Cristo gure Jauna Jaungoico ta guizona da?  
 E.—Bai Jauna.  
 G.—Nola deritza Jaungoicotasunean?  
 E.—Seme Jaungoicoa.  
 G.—Ta Jaungoico, ta guizona dan aldetic nola deritza?  
 E.—Jesu Christo deritza Jauna.

23.20. *bere*: A. *bede*?24.4. *gauza*: A. *-tza*.24.5. *ezagutcendu*: A. *etza*.24.7. *viotcen*: ondoren letra bat tintaz estalia.

G.—Trinidad gucz Santuco hiru personen artean ceñi eguinzan guizon?

E.—Semea bacarric, eta ez Aita; ez Espiritu Santua ere.

G.—Nun eguinzan guizon?

E.—Maria gucz Santaren errai garbietan.

G.—Noren obraz?

E.—Espiritu Santuaren obraz.

G.—Orrela ez zan guizon eguin Aita eternoaren ta bere obraz Semea?

E.—Bai Jauna.

G.—Cergatic esatendezu bada bacarric, Espiritu Santuaren obraz guizonduzala?

[25] E.—Cergatic obra miragarri au; encarnacioco Misterio; Jaungoicoaren Semea guizon eguiteau izanzan gure erruqui ta amoriozco obra; eta izan arren hiru persona Jaungoicozcoac, amorioan, poderioan, jaquindurian, ta beste perfeccioetan berdiñac; orregatic ere amorioan aditcenda Espiritu Santua: Poderioan Aita: ta Semea Jaquindurian; beragatic esatenda Espiritu Santuaren obraz guizonduzala.

G.—Ta orregatic bada Espiritu Santua Seme guizonduaren Aita?

E.—Ez Jauna. Jesu Cristoc Jaungoicoadan aldetic du Aita Eternoa berdin gucian berarequin, ta ez du Amaric: ta guizontasunean du Ama auda Maria Santissima, baña ez du Aita guizonic: ta Aita Eternoa du Aita propioa.

G.—Nola eguinzan obra andi, ta miragarri au, edo cer eguinzuan Espiritu Santuac?

E.—Lau gauza eguincituan, Jauna.

G.—Cer gauza dira horiec?

E.—*Lenengoa*: Espiritu Santuac Ama Virgñaren erraietan beraren odol gucz garbiarequin moldatu edo formatuzuan gorputz bat.

*Bigarrena*: Ecer-ecetic criatuzuan Anima bat.

*Hirugarrena*: Anima ta gorputza alcarri unitu ciozcan unio naturalarequin.

*Laugarrena*: Anima ta gorputz alcarri batu oec unituciozcan Trinidad gucz Santuco bigarren Personari unio sobrenaturalarequin; horrequin gueldituzan len Jaungoicoa bacarric zana, orain Jaungoico, ta guizon eguiazco: Persona divinoarequin bacarric; ta naturaleza birequin auda Divino, eta humanoarequin.

G.—Cembat demboran eguinzan obra miragarri au?

E.—Bein beingoan, vne edo instante batean.

G.—Jaungoicoaren Seme guizon eguiñari nola deritza?

E.—Jesu Cristo Jauna.

[26] G.—Nor da Jesu Cristo?

24.21. *ere*: e- gero erantsia.

25.12. *eguinzan*: A. *tzan*.

25.14. *gauza*: A. *tza*.



E.—Da Jaungoico viciaren Semea, gu erremediatcearren, ta gueroi vicimoduco icasvide edo exemploa ematearren guizon eguinzana.

G.—Cer esan naidu Jesus icen Santu onec?

E.—Salvatzallea, edo Salvadorea; libratu guinduelaco gueren becatuetatic, ta deabruaren mendetic.

G.—Cer esan naidu Cristo icen Santu onec?

E.—Untatua; auda Espiritu Santuaren gracia ta doaiez betea.

G.—Cembat persona ditu Jesu Cristoc?

E.—Bat bacarra, ta au Jaungoicoadan aldetic edo persona Divinoa.

G.—Cembat izaite edo naturaleza ditu?

E.—Bi Jauna. Jaungoicoadan aldetic bata, ta bestea guizonadan aldetic. Orobat: ditu bi centzu, edo entendimentu, ta bi vorondate. Baña ez du gogo edo memoria bat besteric, ta au guizonadan aldetic, cerren Jaungoicoadan aldetic gucia dacus: igaroa, oraingoa ta etorquizuna.

G.—Aita Eterno, Seme, ta Espiritu Santuac cembat izate ditue?

E.—Bat bacarric Jauna, ta au Jaungoicozcoa edo Divinoa. Baña Aita Eterno, ta Espiritu Santuac ez daucate guizonezco, edo humanoric, cergatic ez ciran guizon eguin.

G.—Jesu Cristo gure Jauna nola guizon eguiñ ta jaiozan Ama Virginia gandic?

E.—Obratcenzuala Jaungoicoac mirariz, ta izaquiz gañera, edo Sobrenaturalmente.

G.—Maria Santissima beti izanzan Virgña?

E.—Bai Jauna beti, eta betiro.

G.—Nor da gure Errendemtorea?

E.—Jesu Cristo gure Jauna.

[27] G.—Cergatic?

E.—Cergatic bere eriotza, ta pasioarequin erredimitu guinduan.

G.—Beraz hillzan Jesu Cristo?

E.—Bai Jauna.

G.—Jaungoico edo guizona dan aldetic hillzan?

E.—Guizona dan aldetic Jauna.

G.—Cergatic Jesu Cristo gure Jaunac eraman nai izancituan bere Passioco penac, ta mundu onetan izancituan beste neque andiac?

E.—Gu becatutic, ta gueren etsaien escuetatic libratcearren.

G.—Jesu Christo hill ezbaliz izango guenduan becatuen barcacioric, ta Ceruric?

E.—Ez Jauna: beragatic Cristoren Passioa degu Ceruco guiltza, ta beti gogoan beardegu.

G.—Cer aditzen dezu Jesu Cristo gure Jaunaren Anima jachizan infernu icen onegatic?

26.15. *dacus*: -s z baten gainean?

26.21. *eguiñ* atzetik 2 letra ezabaturik; *jaiozan*: A. -tzan.

27.3. *hillzan*: ñrekin eta orobat 2 lerro beherago, gehi zàn 19.ean; ez da beste horrelakorik testu osoan eta ez bide dute egiteko berezirik.

E.—Ez condenatuac dauqueen tormentutegua, baicic justuen Animac ceuden lecua, ceñari deritzan Limboa.

G.—Nola jatssizan?

E.—Animaz Jaungoicotasunari unituric.

G.—Ta Jesu Cristoren gorputza nola gueldituzan Sepulturan?

E.—Jaungoicotasunarequin berarequin unituric.

G.—Hirugarren egunean nola piztu, edo erresucitatuza illen ar-tetic?

E.—Berriro alcargana batcen cirala aren Anima, ta gorputz Santua, gueiagoren gueiago ez illceco.

G.—Nola igozan Ceruetara?

E.—Bere vertute, eta podorioz iñorc ere lagundugabe.

G.—Nola esatenda: Jesu Cristo gure Jauna dagoala eseriric Aita Jaungoicoaren escuitic. Jaungoicoac ez duala escui, ta ezquerric, ta ez gorputcic ere?

E.—Guri aditcera emateco Jesus gure Erredentoreac, Jaungoicoa [28] dan aldetic daucala Aita Eternoac adiña Gloria: ta guizonadan al-detic beste guciac baño gueiago.

G.—Noiz etorrico da viciac, ta hillac juzgatcera?

E.—Mundu onen bucaeran, edo azquen juicioco egunean.

G.—Orrela mundu au, ta dituan gauzac bucatuco dira?

E.—Bai Jauna, guciac.

G.—Ta ill gucioc piztu, edo erresucitatuco guera?

E.—Bai Jauna.

G.—Cer esan naidu Santuen Comunioac?

E.—Cristau fiel guciac parte dirala alcarren obra onetan. Jaungoi-coaren gracian badaude, gorputz bateco miembroac becela ceña dan Eliza.

G.—Cerdea Elitza?

E.—Da Cristau fededun guciac junta edo Congregacioa, ceñaren burua dan Cristo Ceruan, ta lurrean Aita Santua.

G.—Nor da Aita Santua?

E.—Da Erromaco Obispo Nagusia, Cristo gure Jaunaren Ordecoa lurren, ceñari gauden gucioc beartuac obedecitcera.

G.—Cer esan naidu becatuen barcacioac?

E.—Eliza Santac badaucala Sendagarria, edo gure becatuen bar-cacioraco erremedioa Sacramentuetan Jesu cristoc vticia.

G.—Cer esan naidu araguiaren piztutze edo Erresurreccioac?

E.—Azquen Juicioco egunean ill guciac piztuco dirala. Onac gloria, ta edertasunez beteric, ta gaitztoac chit ichusi, penaz beteric, eta ica-ragarriac.

G.—Cer esan naidu betico vicitzac?

E.—Azquen Juicioco eguna igaro ezquero, Justuac Anima [29] ta gor-

putz egongodirala beti glorian; ta gaiztoac anima ta gorputz Infernuan penaz beneric.

G.—Credoa, ta Fedeco Articuloac gañera, beneric Siñistendezu?

E.—Bai Jauna Escritura Sagraduan dagoana, ta Jaungoicoac bere Elizari aguertudiona Siñistendet.

G.—Cer gauza dira horiec?

E.—Ez hori niri galdetu, cerren naiz ezjaquina, edo ignorantea. Eliz Ama Santac baditu jaquintsu, eracusle edo Doctoreac hori eranzuten daquitenac.

[30] BIGARREN CRISTAVAC JAQUINBEARDUANAREN AZALDE  
EDO EXPLICAZIOA

G.—Nola jaquingo dezu, cer escatu, edo erregutu beardezun?

E.—Jaquiñarequin *Aita gurea* eta Elizaco beste oracioac.

G.—Esanitzatzu Aita Gurea: Ave Maria: ta Salvea?

E.—Aita Gurea. ect.

G.—Norc esanzuan Aita Gurea?

E.—Jesu Cristoc, Jauna.

G.—Certaraco?

E.—Guri oracio eguiten iracasteco.

G.—Cer da oracio eguitea?

E.—Jaungoicoagana viotza jasotcea, ta mesede escatcea.

G.—Ceren bear guera oracio ondo eguiteco?

E.—Lau gauzaren, auda: Piedade, Confianza, humiltasun, eta iraupen, edo perseveranciaren.

G.—Aita gurea esatean, norequin hitz eguitendezu?

E.—Jaungoico gure Jaunarequin.

G.—Ceinda oracio gucietan onena?

E.—Aita gurea, Jauna.

G.—Cergatic?

E.—Cergatic Jesu Cristo gure Jaunac bere auz esanzuan Apostoluac escatuta.

G.—Cergatic gueiago?

E.—Ceren dauzcan zazpi escari, Caridade gucian fundatuac.

G.—Cein da lenengo escaria?

E.—Santificatua izandedilla Zure icena.

G.—Cer escatcendiozu escari orretan?

E.—Jaungoicoaren icen guciz Santua izandedilla ezagutua, eta alabatua Mundu gucian.

[31] G.—Cein da bigarrena?

29.2. *gaiztoac*: A. *gaitz*.

29.9. *jaquintsu*: A. *jaquinzu*; *eracusle*: A. *eracutzle*.

30.2. EXPLICAZIOA; A. -TZIOA.

30.5. *Esanitzatzu*: A. -zu.

30.13. *Cerren*: -rr- zerbaiten gainean.

30.14. *Piedade*: ondoren letra bat ezabatua.

- E.—Betor gugana zure erreinua.
- G.—Cer escatcendiozu escari onetan?
- E.—Erreinadezala gure animetan, gure Jaungoicoac oraiñ gracia-requin, ta guero digula gloria.
- G.—Ceinda hirugarrena?
- E.—Eguinbedi zure vorondatea nola ceruan ala lurrean.
- G.—Cer escatcendiozu escari horretan?
- E.—Munduan gaudenac eguindezagula Jaungoicoaren vorondatea, ceruan daudenac becela.
- G.—Cein da laugarrena?
- E.—Egun iguzu guri gure egunoroco oguia.
- G.—Cer escatcendiozu escari horretan?
- E.—Eman deguigula Jaincoac gorputzarenzat convenidan janaria, ta animarenzat janari edo mantenu espiritual graciarena, ta Sacramentuena.
- G.—Ceinda bostgarrena?
- E.—Barcatuzaizquiguzu guri gueren zorrac, guc gueren zordunai barcatcendiegun becela.
- G.—Cer escatcen diozu escari horretan?
- E.—Barcatudizaitzquigula guri gure Jaincoac gueren becatuac; guc injuriatu gaituenai barcatcen diegun becela.
- G.—Ceinda seigarrena?
- E.—Ez deguiguzula utci tentacioan erorten.
- G.—Cer escatcen diozu escari orretan?
- E.—Libragaitzala Jaungoicoac, vorondatez lecu ematetic gure etsaiac becatu eraguiteco bialtcen dizquigun tentacioai.
- G.—Animaren etsaiac becatu eraguin lezaquee iñori berac naiz ez duala?
- E.—Ez Jauna: Anima zaletugabe becatu tentacioarequin.
- [32] G.—Cergatic Jaungoicoac permititcenditu tentacioac?
- E.—Gure exercioraco; ta venzutcenditugula bere graciarequin gure merecimentu andiagoraco.
- G.—Ceinda zazpigarrena?
- E.—Baicic libragaitzazu gaitcetic.
- G.—Cer escatcendezu emen?
- E.—Arren libragaitzala Jaungoicoac, ala Animaco nola gorputceco gaitz ta peliguru gucietatic.
- G.—Cer esan naidu azqueneco hitz *Amen* onec?
- E.—Oracioetan esan naidu: ala izandedilla.
- G.—Ta Credoan ta Fedeco beste gaucetan?
- E.—Ala dala.

G.—Baña cergatic asieran esatendezu: Aita Gurea Ceruetan zaudena?

E.—Jaungoicoagana viotza jasotceco, ta berari humiltasun, ta confianzarequin escatceco; ala ezda peticio edo escaria; baicican artaraco sarrera.

G.—Cer oracio esatendiozu gucien artean Ama Virgifiari?

E.—Ave Maria edo Salvea.

G.—Norc esanzuan Ave Maria?

E.—San Gabriel Arcangelac, Jaungoicoac biralduzuanean beraren errai garbietan guizon eguiteco asmoa aguertcera Ama Virginari.

G.—Norc esanzuan Salvea?

E.—Eliz Ama Santac Jauna, dauca beretzat artua.

G.—Certaraco.

E.—Virgifiña Amari mesedeac humill escatceco.

G.—Ave Maria, edo Salvea esatendezunean norequin hitz eguitendezu?

[33] E.—Becatarien Ama Maria Santissimarequin.

G.—Nor da Ama Virgifiña?

E.—Da Señora bat guciz preciatua, vertute, gracia, ta doai miragarritz betea, ta Jaungoicoaren Ama ceruan dagoana.

G.—Nun dago Maria Santissima?

E.—Ceruan, Jauna.

G.—Ta, Aldare, estampa, ta medalletan diranac cer dira?

E.—Ceruan dagoanaren iduriac, edo imaginac.

G.—Certaraco ifintcenzaigu?

E.—Emen ecusten ditugun oen vitartez, Ceruan dagoanaz oroitu gaitean.

G.—Oracio eguin beardiegu Aingueru ta beste Santuai?

E.—Bai Jauna, gure vitartecoai becela.

G.—Cer dira Aingueruac?

E.—Dira Jaungoicoa dacusten ispiritu zorioneco batzuec, ala ez debe Aingueruac gorputtic.

G.—Certaraco Jaungoicoac eguincituan?

E.—Beraren Magestadea alabatceco, ta bere Ministroac becela, Eliza governatu, ta gu gorde, ta zaitceco.

G.—Beraz zuc-ere badezu zaitcen zaituan Ainguerua?

E.—Bai Jauna, ta beste edoceñ personac ere badu berea.

G.—Beragatic gucioc esquerrac Jaungoicoari mesede andi onegatic emanbeardiozcagu, ta devocio ta amorio izan beardiogu Aingueru Santuari; eta escatu maiz, edo sarri bere laguntasuna gorde gaitzan pauso gaizto, ta gueren etsaien engañuetatic erretzatcen diogula, esnatcen gueranic, Aita Gurea, eta Ave Maria.

[34] HIRUGARREN CRISTAVAC JAQUINBEARDUANAREN  
EXPLICACIOA

G.—Nola jaquingodezu, cer eguin, edo obratu, beardezun zere animaren Salvacioraco?

E.—Jaquiñarequin Jaungoicoaren Legueco amar Mandamentu Santuac, Elizaco bostac, ta obra Misericordiazcoac.

G.—Esanitzatzu bada oriec?

E.—Jaungoicoaren legueco Mandamentuac dira Amar, ect., Eliza Ama Santaren Mandamentuac dira bost, ect., Obra Misericordiazcoac dira Amalau, ect.

G.—Ceinda Jaungoicoaren Legueco Lenengo Mandamentua?

E.—Jaungoicoa amatcea gauza gucien gañean.

G.—Norc amatcendu Jaungoicoa?

E.—Bere Mandamentu Santuac gordetcentituanac.

G.—Cer da Jaungoicoa gauza gucien gañean amatcea?

E.—Aren Magestadea ofenditubano, beste gauza guciac galtcea naia-go izatea.

G.—Jaungoicoaren amorioaz beste gauzaric aguintcendigu Mandamentu onec?

E.—Bai Jauna, Animaco, ta gorputceco errespeto, eta erreverencia guciarequin bera bacarric Jaungoicoa adorat dezagula Erligioco vertutearen bitartez.

G.—Cer gueiago?

E.—Beraren Magestadeagan Siñistu ta esperadezagula.

G.—Norc Mandamentu onen contra becatu eguitendu?

E.—Jaungoico falsoac adoratcentituanac; oengan siñistenduanac; baita ere Jaungoicoari gorrotodionac; bere Misericordiaz esitcenduanac; Doctrina icasten ezduanac; eguiten ezduanac fede, esperantza, ta [35] Caridadeco actu, edo egiturac, fedeco misteriorembat vcatcenduanac; sorguinqueria edo beste gauza onelaco oquerrembat batec Siñistu, edo aezaz valiatcendanac, edo Erligioco vertute Santuaren contra dijoan gauzarembat eguitenduanac.

G.—Cer da Erligioco vertutea?

E.—Da vertute Santu bat, ceñarequin Jaungoicoari gauza gucien Jabeari becela adoracioa ematendiogun: ta Santuai Jaungoicoagatic.

G.—Ceinda Bigarrena?

E.—Juramentu alperric ez eguitea Jaungoicoaren icena gaitzqui erabilliaz.

G.—Norc eguitendu juramentu alperra?

E.—Juramentu eguitenduanac eguia bague, justiciabague eta premiabague.

34.2. EXPLICACIOA: A. -TCIOA.

34.7. Esanitzatzu: A. -azu.

35.7. adoracioa: A. -tcioa.

G.—Cer becatu da eguiabague, dudan, edo guezurrez juramentu eguitea?

E.—Pecatu mortala Jauna, gauzaric chiquienaren gañean izan arren; ta calteric badator dāna dala, erremediatu beardu becatuaren azpian.

G.—Juramentu eguitenduanac eguingoduala gaitcembat; edo erre-gu gaitztoembat proximoaren contra; auda Juramentuaren Justiciari faltatcea cer becatu da?

E.—Deseatcen diogun gaitza andia edo gravea bada, becatu mortala; ariña edo levea bada, veniala. Ta gaitz vra cumplitcea orobat: orregatic ez da bear eguin alaco juramenturic ta eguinarren, eztago cumplitceco obligacioric.

G.—Eguiaz ta gauza onaren gañean eguin arren juramentua, ezpada go onetaraco premiatic, cer becatu eguingoda?

E.—Berez veniala, aurreraco peligururic ezpada; auda guezurrez-coac eguiteco, oitura gaiztoa artceco, edo iñori gaizqui eracusteco escandaloaz.

[36] G.—Nola batec aldeegingo du juramentuetatic?

E.—Artcenduala, ez, edo bai esateco oitura, Cristo gure Jaunac eracustendigun becela.

C.—Cein da Hirugarren Mandamentua?

E.—Jai egunac Santificatcea.

G.—Norc santificatcenditu Jai egunac?

E.—Meza osoa enzutenduanac, ta bearric premia bague eguiten ez duanac.

G.—Ta beste egunetan baño contuzago becatutic aldeeguin beardu Cristavac Jaietan?

E.—Bai Jauna.

G.—Cein da Laugarren Mandamentua?

E.—Gurasoac honrratcea, Jauna.

G.—Norc honrratcenditu gurasoac?

E.—Amoriodienac, obeditcen, socorritcen, ta errespetatcendituanac.

G.—Nor aditcenda gurasoen icenean?

E.—Nagusiago edade, dinatasun ta governuan diranac: auda Sacerdote, Justiciacoac ta besteac.

G.—Cer aguintcen die Jaungoicoac gurasoai Mandamentu onetan?

E.—Zaiditcela beren ume, ta ondorengoac Jaungoicoaren leguea gorde dezaten. Doctrina ta bearrean eracutsideguiela, ta ondo dicela tratatu.

G.—Au eguiten ez duan guraso, edo nagusia nola vicida?

E.—Pecatu mortalean, ta da Gentillabaño gaiztoago, dio S<sup>n</sup> Pabloc.

G.—Ceinda Bostgarren Mandamentua?

E.—Iñor ez illtcea, Jauna.

35.16. gauzaric: A. -tz.

36.20. zaiditcela: A. zaidicela.

36.25. illtcea; -t- gero ezarria.

- G.—Cer aguintcendigu Mandamentu onec?
- E.—Iñori gaitcic eguin ez diozagula, ez pensamentuz, ez hitcez, ta ez deseoz, ta obraz ere.
- [37] G.—Cer dio Jesu Cristoc heralleagatic?
- E.—Nola bestea illtzuan, ala berariere guertatucozaiola.
- G.—Cer gueiago aguintcendigu Jaungoicoac Mandamentu onetan?
- E.—Ez diozagula lagun proximoari becuraco bideric eman edo beatztopa ta escandoloric; ta bera amat dezagula.
- G.—Cein da Seigarren Mandamentua?
- E.—Araguizco becuric ez eguitea Jauna.
- G.—Cer aguintcendigu Mandamentu onec?
- E.—Izangaiteala garbi, ta honestoac hitzetan, pensamentu, deseo, ta obretan.
- G.—Castigu andiac eguintu Jaungoicoac becatari deshonestoaquin?
- E.—Bai Jauna ta guciz asco, ta icaragarriac; errecituan erri asco Cerutic biralduricaco suarequin, ondatuzuan Mundu gucia zortci lagunenez besteac berrogei eguneco euriarequin.
- G.—Cein da Zazpigarren Mandamentua?
- E.—Ez iñori ecer ostzea, edo lapurretariac ez eguitea.
- G.—Cer aguintcendigu Jaincoac Mandamentu onetan?
- E.—Ez dezagula iñoren gauzaric artu, iduqui, deseatu, edo nai izan jabearen vorondatearen contra.
- G.—Honra, fama, eta interesa quentcenduanari barcatcenzaio becatua confessatu vtsarequin?
- E.—Ez Jauna: biurtugabe albadu.
- G.—Ceinda Zortcigarren Mandamentua?
- E.—Ez iñori falso testimonioric alchatcea, ta ez guezurric esatea Jauna.
- G.—Cer aguintcendigu Mandamentu onec?
- [38] E.—Ez diozagula iñori ezduan becuric egotci; ez dezagula besaca dabillenac; iñoren Secretoa aguertcenduanac, ta guezurra dioanac. catu edo falta Secretoco edo gorderic aguertu: ez iñor juzgatu, ta ez guezurric esan.
- G.—Norc becatu eguitendu Mandamentu onen contra?
- E.—Arrazoi gabe juzgatcenduanac, fama quenzen duanac, gaitzqui esaca dabillenac; iñoren Secretoa aguertcenduanac, ta guezurra dioanac.
- G.—Cer eragozten, edo debecatcen debe bederatci, ta Amargarren Mandamentuac?
- E.—Seigarren, ta Amargarren pensamentu, deseo loi, ta ondasunen guticiac.
- ... ..
- G.—Esazu Elizaren Mandamentuac?



- E.—Eliza Ama Santuaren Mandamentuac dira bost, ect.  
 G.—Certaraco dira Eliza Ama Santaren Mandamentuac?  
 E.—Jaungoicoaren leguecoac obeto gordetceco Jauna.  
 G.—Esazu obra Misericordiazcoac?  
 E.—Obra Misericordiazcoac dira amalau, ect.  
 G.—Cergatic derizte Misericordiazcoac?  
 E.—Cergatic Justiciaz obligatcen ez deben.  
 G.—Noiz Justiciaz obligatcen dute?  
 E.—Guizon jaquinsuen ereitcian, pisuac diran estutasunetan.  
 G.—Cer obra misericordiazco dira edoceñec errazeguindizaqueanac?  
 E.—Conseju ona ematea: Purgatorioco Anima, ta becatuan daude-  
 nac gatic Jaungoicoari erregutcea.  
 G.—Cer irabaztendegu misericordiotsuac izatearequin?  
 E.—Jaungoicoac guzaz misericordia izatea.  
 G.—Ez eguñiaz, becuric eguitendegu?  
 E.—Bai Jauna ascotan Caridadearen contra, Justiciaren contra, au-  
 da errestitucio eguiteco bideric ez bada ere.

[39] LAUGARREN CRISTAVAC JAQUINBEARDUAN GAUZAREN  
 AZALDE, EDO EXPLICACIOA

- G.—Nola jaquingodezu cer artu edo errecivitu beardezun?  
 E.—Jaquifiarequin Elizaco zazpi Sacramentuac.  
 G.—Cein dira oec?  
 E.—Lenengoa, Bateoa ect.  
 G.—Cer gauza dira Sacramentuac?  
 E.—Dira Jesu Cristo gure Jaunac ipiñizituan Siñale aguirian dau-  
 den bazuec, oen videz guri emateco bere gracia ta vertute, edo ondasun  
 espiritalac.  
 G.—Cer da gracia?  
 E.—Da izate Jaungoicozco bat eguiten gaituana Jaungoicoaren Seme  
 ta Ceruco heredero edo jabegai.  
 G.—Ta Sacramentuetan gucioc berdin artcendegu gracia, ta onda-  
 sun espiritalac?  
 E.—Bacoitza nola prestatuta dijoan aetara artzaz bat Jauna.  
 G.—Cer vertute ematenditzquigube Sacramentuac graciarequin ba-  
 tean?  
 E.—Hiru principalmente theologalac edo Jaungoicoarequicoac.  
 G.—Cein dira?  
 E.—Fedea, Esperantza, ta Caridadea.  
 G.—Cer da Fedea?  
 E.—Icusi ez deguna Siñistea, cerren Jaungoicoac ala aguertudion  
 Elizari, ta onec guri bere Ministroen bitartez.  
 G.—Cer da Esperantza?

E.—Da esperatcea betico gloria Jaungoicoaren gracia, ta gure obra onaquin batera.

G.—Cer da Caridadea?

E.—Jaungoicoa amatcea gauza gucien gañean bere ontasunagatic; ta proximuac gueren buruac becela, eguitendiegula, aiec guri eguitea naicoguenduqueana.

[40]

1.<sup>a</sup> Bateoa

G.—Noiz artcendegu Bateoco Sacramentua?

E.—Bateatcen gaituenean Jauna.

G.—Certaraco da Bateoa?

E.—Quentceco jatorrizco becatu edo originala, ta beste animan arquitalditezquean guciac animari graciazco vicitza emanarequin.

G.—Cer da becatu originala?

E.—Da Jauna, gure lenengo guraso Adanen desovedienciagatic gucioi itsasten zacun becatua, ceñean erortengueran Amaren Sabelean Sortuac gueran instante, edo une artan bertan.

G.—Bateatcendanac cer esqueintcendio Jaungoicoari?

E.—Gordecodituala bere Mandamentu Santuac.

G.—Norc aurraren icenean esqueintcendio?

E.—Aita Ponteco edo Compadreac Jauna.

G.—Ta ondoda aurrac bateatu bague iduquitcea?

E.—Ez Jauna, daudelaco bateatu artean deabruaren mendean.

G.—Bada cer eguin bearda?

E.—Hera dan lenen, edo lasterren eraman Elizara bacoitzac bere errico Parroquiara, bateatdezan Erretore, vicario Jaunac, edo oen orde dagoanac.

G.—Premia estuan bateatdezaque edoceñec, ta edoceñ lecutan?

E.—Bai Jauna.

G.—Ta nola bateatuco du?

E.—Arturic Eliza Ama Santac Sacramentu Santu onetan eguitenduana eguiteco asmoa edo intencioa, esango du: Nic bateatcenzaitut (Aurra) Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean: Amen.  
[41] Hitz oec esatearequin batera; botaco dio bateatcenduanari burutic bera (edo aguirian daucan gorputzaren partean) ura, dala puzucoa, ibai, edo iturricoa.

G.—Bateatu gabea Cristava da, edo Salvatditeque?

E.—Ez Jauna, ez Cristava da, ta ez Salvatuco da.

G.—Bateaturic dagoanac gordetcen baditu Jaungoicoaren, ta Eliza Santaren Mandamentuac Salvatuco da?

E.—Bai Jauna; ta da Fede Santuco eguia.

M.—Bateo Santuac barcatcendu becatu originala, ta ematenditu indarrac aren erru, edo gaitzeraco inclinacioa venzutceco.

2.<sup>a</sup> *Confirmacioa*

G.—Noiz artcendu Cristavac Confirmacioco Sacramentua?

E.—Obispo Jaunac Confirmatcenduanean.

G.—Certaraco da Confirmacioa?

E.—Animaren gracia gueitceco, ta sendotceco Bateo Santuac eman-  
daco fedean.

G.—Confirmacioa artceco egonbearda Jaungoicoaren gracion?

E.—Bai Jauna; ta pecatu mortalean dagoala artuco balu, eguingo  
luque lenaz gañera becatu mortala; prestaera gaitztoan artcendualaco  
Sacramentu Santua.

3.<sup>a</sup> *Penitencia edo Confessioa*

G.—Noiz artcendu Cristavac Penitenciaco Sacramentua?

E.—Confessio ona eguitenduan gucian Jauna.

G.—Certaraco da Sacramentu Santu Penitenciacoa?

E.—Animari gracia emanarequin bateatu ezquero eguindaco beca-  
tuac barcatceco.

G.—Cer prestaera, edo gauza beardira Confessio oneraco?

E.—Bost, Jauna.

G.—Cein dira?

E.—*Lenengoa*: Concienciaren Examina.

[42] *Bigarrena*: Becatu eguiñaren Damua edo dolorea.

*Hirugarrena*: Berriz ez becuric eguiteco propositua, edo asmoa.

*Laugarrena*: Becatuac ossoro Confessatcea.

*Bostgarrena*: Confessoreac ematendion penitencia cumplitceco gogoa.

E.—Bost oec daude Sartuac iru parte jaquin aetan. Biotceco da-  
mua; aozco Confessioa, ta obrazco Satisfacioan.

G.—Cer da Concienciaren Examina?

E.—Jaungoicoaren contra eguindaco becatuac gogora, edo memo-  
riara ecartea Jauna.

G.—Nondic edo nola batec eguingodu Concienciaren Examina?

E.—Jaungoicoaren Legue, ta Elizaco Mandamentuetatic; obra mi-  
sericordiazcoetatiq; ta vacoitzaren vicit bide edo estaduari dagozcan  
gauzetatic Jauna.

G.—Nola jaquingodezu, edo ateraco dezu garbiro certan utseguin-  
dezun oen contra?

E.—Pensatu, ta gogora ecarriarequin, nun, ta norequin ibilli nai-  
zan, ta cer jarduera, lan, edo ocupacioetan igaro dedan dembora; eguin,  
esan, pensatu edo deseatu dedan bear ezdana: edo utci dedan eguin-  
bague beardana, ateraaz contuac.

G.—Noiz ta nola eguinbeardu Cristavac Examina au?

E.—Ez dago Jauna dembora señalaturic. Lecu bacarrembatean,

albadet Elizan dembora guchicoa bada Confessioa, onena da vezperatic eguitea; ta dembora lucecoa bada, egun bazuec lenago; escaturic bere gracia Jaungoicoari guciuz oroituric, guciac Confessatdizadan Damu eguiazcoarequin.

G.—Cer da Dolorea?

E.—Jaungoicoaren contra eguindaco pecatuen naigabe edo pena artcea Jauna.

[43] G.—Cembat guisatara da damu, edo dolore au?

E.—Bitara Jauna.

G.—Cein dira?

E.—Contricioa, ta atricioa Jauna.

G.—Cer da Contricioa?

E.—Da Jaungoicoa ofenditua damu izatea, cergatic dan añ ona, beste gautzari aren ontasunari baño beguiratcen ez diogula.

G.—Cer da atricioa?

E.—Damu artcea batec Jauna, Jaungoicoa ofenditua becatuen isu-tsitasunagatic; galdudualaco Jaungoicoaren adisquidetasuna, ta gracia; Ceruco gloria; edo irabatci dualaco Infernua.

G.—Becatuen damuric izandezaquegu Jaungoicoac bere misericordiarequin ematen ezpadigu?

E.—Ez Jauna, ta orregatic escatu beardiogu humill berari.

G.—Cer eguin beardegu gure becatuen damu izateco?

E.—Pensatu nola Fedeac eracustendigun becela becatu mortalarequin galdudegun Jaungoicoaren gracia, ta Ceruco gloria; ta ichustudegula gure anima ecin gueiagoraño: ta ez daucagula beste erremedio edo videric; baicic edo damuarequin Confessatu, edo betico conde-natu. Izanguerala ain gogorrac Jesu Cristo gure Jaunarequico non az-turic bere ontasunaz ipiñi degun berriro gurutcean guri dagoquitgunez, becatu mortal eguin degun bacoitcean. Au ondo pensaturic artu beardegu, asmo sendobat vzteco lengo vicitza gaiztoa, ta aurrera ez beca-turic eguiteco.

G.—Confesatcecoan cer oracio esandezaquezu?

[44] E.—Nere Jauna eta Jaungoicoa emanbeguit bere gracia Confessio onbat eguiteco; bada guertaliteque au nerezat azquenecoa izatea.

G.—Nola Confessatu beardituzu zure becatuac?

E.—Belaunico jarriric Confessorearen oñetan, Jesu Christoretan banengo becela; ta Siñaturic devocio andiarequin berritcededala da-mu, ta propositua, esangodet: «*Ni becataria* edo actu Contricioa: guero esangodiozcat humildade andiarequin nere becatuac batere gor-debague; ez gueiago, ta ez guchiago, nere conciençian arquitcen ditu-dan becela; pensamentuzcoac pensamentuzcoac becela, deseozcoac de-seozcoac becela; itcezcoac itcezcoac becela; obrazcoac obrazcoac be-

43.18. *gueiagoraño*: Or. *gueita*.

43.20. *guerala*: Or. *-rela*.

43.21. *dagoquitgunez*: sic.

zela; ciertoac ciertoac becela; dudazcoac, dudazcoac becela: guero adituco diot Confessoreari Jaungoicoac itz eguiten balu becela, cer esatendidan: ta ausolucioco demboran esangodet viotceco damu, ta proposituarequin: *Nere Jesu Cristo Jauna*, ta andic jaiquita, betaric badet cumplituco det Penitencia.

G.—Becatu mortalembat ucatu, edo uztenduanac Confessatugabe lotsaz, beldurrez, edo maliciaz, Confessio ona eguitendu?

E.—Ez Jauna: eta dago obligatua Confesatcera pecastu mortal orduan utcizuan ura, orduan Confessatucituan guciaquin mortalac bairan; orduan bertan eguintzitanac gaitzqui Confessatuarequin, baita ere Comulgatu bazan; cergatic bat-ere barcatu ezcitzaion; ta Confessatu gabe alduala munduco penitencia guciaquin ere, etz zaio barcatuco.

G.—Conciencia ondo examinaturic becatu rembat aztutzen bazatzu, Confessio ona eguingo dezu?

E.—Bai Jauna: baña gogoratcen bazat gueroz, nago obligatua esatera lenengo eguitendedan Confessioan.

[45] G.—Confessoreac ezan lezaque iñoren becuric edo Inquisiciora iñor Salatulezaque Confessioan adituaz?

E.—Ez Jauna; erreco balute-ere.

G.—Cer becatu barcatcenditu Sacramentu Santu Penitenciacoac?

E.—Batezere mortalac, baitaere venialac; ta ala ez da becatu ain andi, edo itsusiric barcatuco ez digunic, bearbecela errecivitcen badegu, eta au errian bertan Campotaragave.

G.—Beraz ez da aitzakiaric becatuac Confesatugabe utcitceco?

E.—Ez Jauna eta Confessatcen ez dituana, bere culpaz condenatucoda erremedioa nai ezdualaco.

G.—Obligatuac gaude becatu mortal guciac, ta banaca Confesatcera?

E.—Bai Jauna guciac bearditugu Concienciaren Examiñan arquituditugun becela Confessatu.

G.—Ta obligatuac gaude becatu venialac Confesatcera?

E.—Da gauza chit ona; baña ez gaude obligatuac.

G.—Cer da becatu mortala?

E.—Da esatea, eguita, pensatcea, edo deseatecea gauzarembat Jaungoicoaren Leguearen contra, gai andi edo gravean; esanezcoa eguitenda esangaiztoquin; eguitezcoa obra charraquin; pensamentuzcoa, gogora datorren gauza gaiztoari eder eritci utsarequin; ta deseatezcoa era balu gaitz ura eguiteco asmoarequin.

G.—Cergatic deitcenzaio mortala?

E.—Cerren illtenduan eguitenduanaren Anima.

G.—Becatu mortalean erortendan gucian bearda bereala Confessatu?

E.—Da guciz on, baña ez bearra, Jauna.

G.—Bada cer eguintbeardu batec orduan bertan, ta edoecin lengo becatu gogoratcenzaionean?

E.—Damutu eguiaz becatu eguiña: artu ondutceco gogo vicia, ta asmo indarsubat ez berriz alacoric eguiteco, ta Confessatceco Eliza Ama Santac aguintcenduanean.

[46] G.—Ta noiz aguintcendigu Eliza Ama Santac Confesagaitçala becatu mortalaren azpian?

E.—Vrtean bein guchia, edo lenago illtceco peligroan arqitcen baguera. Comulgatu beardegun gucian, becatu mortalic, edo onen quez-caric badegu: baitaere votic eguinbadegu Sarriago Confessatceco, edo Confessoreac gure oneraco aguindu badigu gaude obligatuac cumplitcera becatu mortal pean. Egua arguia da, Eliza Ama Santac chit asco deseatcenduala gu Sarri edo ascotan Confessatcea; erremedio andi onezaz ez becuric eguiteco gu valiatcea.

G.—Cer da becatu veniala?

E.—Da mortaleraco bide, edo prestaera bat Jauna.

G.—Cergatic deritza veniala?

E.—Ez cerren dan gaitz chiquia: bada da Munduonetaco gaitcic andiena baño andiagoo, dalaco Jaungoicoaren ofensa; deritza bai veniala, cerren erraz guizona artan erortendan, eta erraz barcatcenzaion.

G.—Cembat gautzagatic barcatcenzaio?

E.—Bederatcigatic, Jauna.

G.—Cein dira?

E.—*Lenengoa*: Meza enzuteagatic, ect.

G.—Oequin batera bearda becatuen gaitz eriztea edo damua?

E.—Bai, Jauna.

G.—Cer bearda, batec becatu eguiteco?

E.—*Lenengoa*: Ezaguera (ta mortaleraco arguia) gautza ura gaiztoadana.

*Bigarrena*: Naiera edo vorondatea (ta mortaleraco ossoa) gauza gaistoarenzaco.

*Iruigarrena*: Auquera, edo livertadea gautza gaizto vra eguiteco edo ez eguiteco.

[47] G.—Cer da Propositoa?

E.—Da asmo sendo eraguillebat aurreracoan ez becuric eguiteco.

G.—Nola tan beardu izan proposituac?

E.—Ez aurrera iñoiz ere, ta batere becuric eguiteco.

G.—Apartatcen ez danac becatu eguiteco vide, edo ocasiotic aparta alditequeala daduca propositu eguiazcoa?

E.—Ez Jauna, baicican falsoa.

G.—Noiz cumplitu bearda penitencia?

E.—Confessoreac Siñalatcenduanean, ezperen albait lenen, Jauna.

G.—Penitencia artcenduanac cumplitceco gogo edo intencioarequin, eguitendu Confessio ona ezipadu cumplitcen?

E.—Bai Jauna: baño onetan becatu eguitendu, ez cumplitcean.

G.—Confessatutacoan Comulgatceraco, cer oracio esandezaquezu?

E.—Nere Jesu Cristo Jauna: andia izanduda zure misericordia,

niri Confesatceco lecu ematean! Cembat otedaude, nic baño becatu guchiagorequin infernuan! Ta ala ere nic bearzaitut zu nere bularrean artu? Ai! cefi andiadan zure ontasuna! Ondunazazu Jauna, beragatic. Amen.

#### 4.<sup>a</sup> Comunioa

G.—Noiz artcendezu Sacramentu Santu Comuniocoa?

E.—Comulgatcen naizanean, Jauna.

G.—Cer da Comulgatcea?

E.—Da guri jaquinerat zotcea Jesu Cristoc: guerala bere ardiac Ceñac gatic itsurizuan erruqui, ta amorio andiarequin bere odola: jaquin edo adierazocoa irabacizuan gucian degula parte: ta padecituzuana izanduzala gure errescateraco.

G.—Certaraco da Sacramentu Santu Comuniocoa?

E.—Animaren janari espirituala izateco; ta gracia gueitceco.

[48] G.—Cer prestaerarequin artubearda Sacramentu Santu au?

E.—Gorputzaren aldetic barau naturalean, au da gaverdi ezquero ecer-ere jan ta edan gave, Animarenetic Jaungoicoaren gracian, ta da-qui-gula, ta pensatcendegula, cer errecivitu edo artcera goazen: baita joan bearda aldan descenciarequin jancian: bada contu eguizu zoazala Jesu Cristoren eztaietara zure animarequin.

G.—Onela prestatua ez dijoanac cer artcendu?

E.—Bere condenacioa, dio San Pabloc; bada eguitendu Sacrilegioa deritzan becatu arrigarribat.

G.—Prestaera oriezaz gañera, nola prestatuco cera?

E.—Vezperatic penitencia, edo beste obra onembat eguitendedala: Ama Santissimari bere gracia ta laguntza escatcendiodala; valiatcen naizala Fede, Esperantza ta Caridadeco eguintza edo actuz; ta oetatic ateratcendan Contricio edo gaitzqui eguindaco damuaz.

G.—Cer errecivitcendezu Sacramentu Santu Comuniocoa?

E.—Jesu Cristo gure Jauna, Jaungoico, ta guizon eguiazcoa.

G.—Hostian Consagratioco itzac esan baño len cerdago, edo cer da hostia ura?

E.—Ogui legamigabeco piscabat, Jauna.

G.—Ta itz Consagratiocoaquin cer biurtcenda ogui vra?

E.—Biurtcenda Jesu Cristoren gorputz.

G.—Ta Calizan cerdago Consagratiocoac esan baño len?

E.—Ardoa Jauna, ur tanto batequin.

G.—Ta itz Consagratiocoaquin cer biurtcenda ardo vr tanto arequicoa?

E.—Biurtcenda Jesu Cristoren odol, Jauna.

[49] G.—Hostian nola dago gorputza?

47.25. itsurizuan: A. -tzuan eta gero -t- tatxatua.

47.26. adierazocoa: A. tcea eta gero -t- tatxatua; irabacizuan: A. -tci- eta gero -t- tatxatua.

48.5. descenciarequin: sic.

E.—Dago odol, anima, ta Jaungoicotasunarequin Jauna.

G.—Nola dago Calizan odola?

E.—Dago gorputz, anima, ta Jaungoicotasunarequin batean, Jauna.

G.—Badago batean, edo bestean gueiago, edo guchiago?

E.—Ez Jauna; aimbeste dago batean nola bestean, ta badirurie-ere oguia, ta ardoa, an ezdago ogui ta ardoric ezpada Jesu Christoren gorputz, ta odola.

G.—Cer Mezaco demboran dira Consagracioco itz Santu oriec?

E.—Hostia Santua Adoratceco alchatu baño len piscabat; ta orobat guertatcenda Calizan; bitartean ezdago Jesu Cristoren gorputz, ta odolic Sagrariuan baño.

G.—Non dago Jesu Cristo guizona dan aldez?

E.—Ceruan, ta Aldareco Sacramentu Santuan bacarric.

G.—Cer da Aldareco Sacramentu Santua?

E.—Hostia Consagratua, ta ardo Consagratua ta bata ain bestea.

G.—Ta Aldareco Sacramentuan cer dago, ta cer artu, edo erre-civticidezu Comulgatcean?

E.—Jesu-Christo gure Jaunaren gorputz guciz Santua, bere odol chit preciosa; Anima: Jaungoicotasuna; Aita ta Seme, ta Espiritu Santua.

G.—Aldareco Sacramentu Santuan badago Maria Santissima, Aingueru, edo Santuric?

E.—Ez, Jauna.

G.—Nola egonbeardezu Comulgatcecoan?

E.—Burua goracho zucen, beguiac lurrera beguira erreverencia andiarequin: Jauna.

G.—Atera bearda mingain gucia?

E.—Ez Jauna ascoda gueldicho piscabat ateratcea.

[50] G.—Forma Santua aoan artuta, cer eguin beardezu?

E.—Irenchi edo tragatu, valiatcen naizala onetaraco mingañaz, ortzaquin uquitugave albada.

G.—Certaraco da Comulgatcecoan ematen dan Zapi ura?

E.—Ez ezpañac igorcitceco Jauna: baicic ocotzaren azpian, escu biaquin poliqui ipinteco, Hostia Santua lurrera erori ezdedin.

M.—Ez da Zapi ura botaca, la lurrean erabillibear, ezpada batac besteari emanbeardio polliqui.

G.—Noiz artean da ondo chisturic botagave egotea?

E.—Albada ordu laurden batean, Jauna.

G.—Cer eguin beardezu ordu laurden artan?

E.—Jaungoicoari esquerrac eman, iñora beguiratugabe, pensatcendadala nor daucadan nere bularrean.

49.21. *Santua*: -a gero ezabatua?

49.26. *zucen*: A. -to.

50.6. *ipinteco*: Or. *ipen*.



G.—Jesu Cristo gure Jauna izanic ain andia nola dago Hostia chiqui artan?

E.—Mirariz edo milagrozu Jauna, eracustendigula andic-ere humil izatea; ta aimbeste dago Hostia chiquian, nola andian.

G.—Cer Oracio esandezaquezu Comulgatutacoan?

E.—Daquidana, Jauna; Jaungoicoac ematendidana; edo au: O nere Jesus maitea! Cerequin pagatuco diot mesede aiñ andi au! Cerequin eranzundiozaquet zure amorio paregabe oni! Izanic Zurezat Cerua, ta lur gucia lecu laburrac egonzaitzela nere bularrean zu! Ez daucat Jauna cer eman, bada Zurea naiz gucia; ez daquit cer eguin, ta ez cer esan. Zure Ama Santissimari escatcendiot emandeguizquitzula nigatic esquerrac, eta graciac; ta Zuri nere Jabe maitea ardezazula nere viotza [51] cerezat, ta ez nazazula beñere Zugandic apartatu. Irazequizazu Zure amorioaren Sua nere viotcean, izan nadin guciau Zurea. Deseguinitzazu nere becatuac; erremedia itzazu nere miseria, ta premia guciac.

G.—Cer ondasunac ematendizquigu Sacramentu Santu Comunio-coac?

E.—Sendatcengaitu becatuen eritasunetic; libratcengaitu aurreraco becatuetatic; ematen dizquigu indarrac tentacio gucien contra; iracequitcendu gugan Jaungoicoaren amorioa: gueitzendigu gracia. Da gure animaco ezti ta gozotasuna: ta Mundu onetatic goatceneco indarrac ematen dizcun janari sendoa.

### 5.<sup>a</sup> *Extrema-vncioa*

G.—Noiz artu bearda Extrema vncioco Sacramentua?

E.—Eriotzaren peligrozco eritasunean: Jauna.

G.—Certaraco da Extremauncioco Sacramentu Santua?

E.—Hiru gauzataraco.

G.—Ceñiñ dira?

E.—*Lenena*: animari gracia gueitu, ta becatuen arrasto, ta cutsu gaiztoac animatic quentceco.

*Bigarrena*: Deabruaren eraso ta tentacio charren contra animari indarra emateco.

*Irugarrena*: Conveni bada gorputzari osasuna emateco.

G.—Cer prestaerarequin errecevitu bearda Sacramentu Santu Extremavnciocoa?

E.—Jaungoicoaren gracion, Jauna, ta confiantza andibatequin, Sacramentu onen gracion: Jesu Cristogana eriac zijoacen fedearquin.

G.—Ondo da agoniarañe ez artcea?

E.—Ez Jauna, artu beardu batec albadu bere ezagueran dagoanean, ta confiatcendala Jaungoicoagan, ta Sacramentu Santu onetan.

### 6.<sup>a</sup> *Ordena*

G.—Certaraco da Ordenaco Sacramentua?

[52] E.—Ordentceco, ta Consagratceco Eliz guizonac nola diran Sacerdoteac, Diaconoac, ta besteac.

G.—Cer prestaerarequin bearda artu?

E.—Jaungoicoaren gracian: ta bera, ta besteac Salvatceco go-goarequin.

### 7.<sup>a</sup> *Matrimonia*

G.—Certaraco da Matrimonioco Sacramentua?

E.—Ezcontceco, ta ezconduai gracia gueitu, ta emateco especiala alcarrequin viciditezen paquean, ta humeac badituzte aciditcen Jaungoicoaren Leguean Ceruraco.

G.—Certaraco ezcondu bearda?

E.—Elcarrequin paque, amorio, ta batac besteari sufritcendiola vicitceco: Aurric Jaungoicoac ematen badu ondo acitceco ta azquenic Jaungoicoa obeto servitceco batac besteari laguntcendiola.

G.—Cer prestaerarequin errecivitu bearda Sacramentu Santu Matrimoniocoa?

E.—Jaungoicoaren gracian, Jauna.

G.—Orrela ezcontcendiranac chit ondo eguitendue Confessatcea, ta Comulgatcea?

E.—Bai Jauna: ta ezcondu bearduenac arquitcen badira becatu mortalean, edo onen quezcaren batequin, premiaz Confessatu beardue, frutuarrequin errecivitceco Sacramentu Santu Matrimoniocoa, ta ez becatu berriric eguiteco lengoaz gañera.

G.—Ta deritzazu arrasalde, ta gabeco ezcontzaz?

E.—Dirala Jauna, becatu ascoren gaiac eztaiaquin, ta Cristavac utci beardituen usadioac.

G.—Ta ezconduac beren artean eguin lezaquee luxuria edo deshonesteriac becuric?

[53] E.—Bai Jauna ascotan templanzan faltatuaz, ta bazuetan mortallac castidade dagoquienen contra, ta escandaloagatic ere bay, emarequin dala alcarri, dala besteri.

G.—Eta noiz artubearditue ezconduac, bedicatcio, edo paramentacioac?

E.—Albada ezcontcen diranean Jauna, edo len bait len; ta ala ezdue ondo eguiten luzatcendebenac, elizac eragozten ez duanean.

M.—Badira gauza bazuec ezcontcea eragoztenduenac bacarric; beste bazuec ceñaquin errecivitcen ez dan Sacramentu Santu Matrimonicoric; ta deitzenzaie impedimentuac: ta bigarren oetatic jaquiñenac gure aldetan dirade aidebadira odolez laugarren graduraño, au da erengusuarequin ere, ecin ezconditeque dispensa-gave. Orobat obrazco lanic izanbadu iñorc, ecin ezconducoda aren Ama, Señide, ta lengusuarequin, ezta bere emazte izandanaren laugarren graduan dagoanarequin: Voto castidade edo erligiocratic eguinbada betico: Iñori itcic eman ba-

zaio ezcontceco, ecin ezconducoda dispensagave aren Senide, edo guraso-  
requin: Beste onelaco asco dira ceñaquin allegatcendiranac Sacramen-  
tu Santu Matrimoniocora ez dira guelditcen ezconduac, ezpada aman-  
cebatuac, ta becatuan. Beragatic onelacoric, edo onelacoren dudaric  
duenac galdetu beardioe Confessore Jaquinsuren bati, edo, beren Erre-  
tore, edo Vicarioai errecevidecen beardan bezela Sacramentu Santu au,  
ta seguratceco eren Concienciac.

G.—Ta pecatu mortalean aguertubeardue deiac eralquitcendiran-  
nean, impedimentu oec daquitenac, ta ezcontcendiranac berac galde-  
tcendienean, Erretore, edo Vicarioac alacoric duen?

E.—Bai Jauna; eragozteco Sacrilégioac, Matrimonioaren vtstasu-  
na, edo nulidadea, ta gañeraco becatuac.

[54]

## BECATU CAPITALAC

G.—Cembat dira becatuen Sustraiac, edo becatu Capitalac?

E.—Zazpi, Jauna.

G.—Ceñ dira?

E.—*Lenengoa*: Soverbia, etc.

G.—Cergatic zazpi oeri derizte Capitalac?

E.—Cerren oetatic, iturribatetic vra becela jaiotcendiran beste  
becatuac.

G.—Zazpi oec dira berenez becatu mortalac?

E.—Ez Jauna, izanditezque mortalac, baitaere venialac.

G.—Noiz izangodira mortalac?

E.—Jaungoicoaren, edo Elizaren Mandamenturen baten contra di-  
ranean gauza andian.

G.—Cer da Sovervia?

E.—Besteac baño gueiago izateco nai, zale, edo gogo eragabeco bat.

G.—Cer aditcendezu: Eragabecozat?

E.—Arrazoiaren contra dan gauza, Jauna, vicio onetan, ta besteetan.

G.—Cer da guticia, edo avaricia?

E.—Ondasunen nai, edo zale eragabeco bat.

G.—Cer da Luxuria?

E.—Da araguiaren atseguintasun loien nai, gurari, edo zale eraga-  
beco bat, Jauna.

G.—Cer da ira, edo colera?

E.—Da vengatceco gurari, edo nai eragabeco bat.

G.—Cer da Gula?

E.—Jateco, ta edateco nai, edo gurari eragabeco bat.

G.—Cer da invidia?

E.—Besteren onaz atsecabe, edo pena artcea.

G.—Cer da naguitasuna?

53.21. *errecividecen*: A. *-vitde*.

54.6. *oeri*: A. *oiri*.

- E.—Gauza oneraco atcerapena, Jauna.  
 [55] G.—Zazpi becatu oen Sendagarri, edo contraco vertuteac badira?  
 E.—Bai Jauna.  
 G.—Cein dira?  
 E.—Soberviaren contra, humiltasuna, ect.

#### ANIMAREN ETSAIAC

- G.—Animaren etsaiac cembat dira?  
 E.—Hiru Jauna.  
 G.—Cein dira?  
 E.—Mundua, Demonioa, ta araguaia.  
 G.—Nola tentatcengaitu Munduac?  
 E.—Bere exemplu, ta esan gaiztoaquin.  
 G.—Nola igues eguingo dezu Munduagandic?  
 E.—Munduaren anditasun, ta arrotasunac oñperatuarequin. Jaungoicoaren leguea gorde, ta Santuac imitatcearequin.  
 G.—Nola tentatcengaitu Demonioac?  
 E.—Gogora pensamentu char, ta gaiztoac ecarriarequin.  
 G.—Nola igueseguingo dezu Demonioagandic?  
 E.—Oracio, ta humiltasunarequin.  
 G.—Ta nola tentatcengaitu araguiac?  
 E.—Betico gaitzeraco eraso, gogo edo inclinacioarequin.  
 G.—Nola igueseguingodezu araguiagandic?  
 E.—Aren gogoco gauzac ez eguiñarequin; Jaungoicoac lagunduric castigatu, ta ecitzearequin araguaia, barau, diciplina, ta gorputza beste modutara moldatuarequin. Auda etsairic andiena, cergatic beti guerequin darabilgun; ta nai arren, Deabru, ta Munduagandic bezela, ecin beronegandic aldeguindezaquegun.

#### [56] VERTUTE THEOLOGAL, EDO JAUNGOICOAREQUICOAC

- G.—Cein dira Cristavac bearren dituan vertuteac, ta berez andienac?  
 E.—Fedea, Esperantza, ta Caridadea, Jauna.  
 G.—Nolatan edo cer moduz ditugu vertute oec?  
 E.—Jaungoicoac bere misericordiaz emanic.  
 G.—Eguizu Fedeco eguintza, edo Actua?  
 E.—Nic Siñistendet, ect...  
 G.—Eguizu Esperantzaco Actoa?  
 E.—Esperatcendet, ect...  
 G.—Eguizu Caridadezco Actoa?  
 E.—Nic amatcenzaitut, ect...

55.12. *eguingo*: Or. -do.

55.25. *Deabru*: Ondoren tintaz estalia -a.

G.—Hiru vertute oetatic ceñ da andiena?

E.—Caridadea, Jauna.

G.—Cerequin Christavac galtcendu Caridadea?

E.—Becatu mortal edoceñequin, Jauna.

G.—Nola guelditcenda becatu mortala eguitenduanaren anima?

E.—Eche eder batean gorputz vstelbat becela.

G.—Cerequin barcatcenda becatu mortala?

E.—Confessio on baten bitartez: Contricio eguiazcoac ere barca-  
tcendu; edo onen vitartez Jaungoicoac barcatcendu, Confessatu nai, ta  
ecin danean, bada jaquiñada Contricioan Confessatceco asmoa Sartua  
dagoana: beragatic oitu beardegu ascotan Contricioa eguitera.

### AZQUEN GAUZA EDO NOVISSIMOAC

G.—Ceinda bide, edo erremedio egoqui, ta indarsua becatuic ez  
eguiteco?

E.—Azquen gaucetan pensatcea, Jauna.

G.—Cein dira azquen gauza oec?

E.—Eriotza, Juicioa, Infernua, ta gloria.

[57] G.—Certan dago eriotza?

E.—Animac gorputzetic alde eguitean, Jauna.

G.—Cer pensatu beardu Cristavac eriotzaren gañean?

E.—Eriotzaren Samintasuna; nola dan fede Santuco eguia gucien,  
ta bacoitzaren ill bearra; bein bacarric, ta iñorc eztaquigula noiz, non,  
ta nola.

G.—Cer da Juicioa?

E.—Jaungoicoac Animari artucodion contua.

G.—Cer gogoratu beardegu Juicio onen gañean?

E.—Orduan ezdegula izango bitarteco, ta adisquideric guere obra  
onac baño, ta atera beardegu orduan naico degun becela vicitceco asmoa.

G.—Cer da Infernua?

E.—Da condenatuen toquibat aldegucietara icaragarria; ta ceñean  
ezdagoan, ta ez iñoiz egongodan gauza gogaicarri ez danic.

G.—Cer pensatu beardu Cristavac emen?

E.—Ceñ zoraqueria arrigarria dan becatua, batezere mortala: iza-  
nic bat bacarra asco, infernura eramateco; ta consideratcio onequin  
jatchi ascotan ara; illtcandanean jachi ez dedin.

G.—Cer da Gloria?

E.—Da ondasun, ta atseguin gucien pilla bat, Jaungoicoa ecusi ta  
gozatuaz iñoiz ere galtceco peliguru bague.

G.—Cer gogoratu beardu Cristavac gloriaren gañean?

E.—Munduco ondasun ta atseguintasunac, Cerucoen aldean ezdi-  
rala ondasunaren icenaren diña. Beragatic emengo guciac oñperatu bear-  
dirala, Cerucoac irabaztearren.

## VERTUTE CARDINALAC EDO PRINCIPALAC

- G.—Cembat dirade Vertute Cardinal edo principalac?  
 E.—Lau, Jauna.  
 G.—Cein dira?  
 E.—*Lenengoa*: Prudencia, ect.
- [58] G.—Cer da Prudencia?  
 E.—Da cer eguin, ta cer ez eguin eracustendigun vertutebat; gure zorieco fiña alcantatzeco.  
 G.—Cer da Justicia?  
 E.—Da gauza gucietan bacoitzari berea ematea eracustendigun vertutebat, ta iñori ecertan calteric ez eguitea.  
 G.—Cer da Fortalezaz?  
 E.—Da vertute bat, ceñarequin venzutcenditugun Salvatcioco bi-dean ditugun neque, ta dificultadeac.  
 G.—Cer da templanza?  
 E.—Da vertute bat, jan, edanean, ta beste gustoetan zucendu, edo governatcengaituana, apartatcen gaituala gulleria gaitztoetic, ta contenta eratcitcen gaituala arrazoi danarequin.  
 G.—Cer vertute oezaz gañera beardegu?  
 E.—Jaungoicoaren vorondatearequin conformatcea, Jauna.  
 G.—Cer gauzatan conformatu beardegu?  
 E.—Ez bacarric aguintcendizquigunetan, baitaere pobreza, eritasun, ta guertatcen zaizcun gauza gucietan.  
 G.—Orretaraco cer consideratu beardegu?  
 E.—Dala Jaungoicoa gucz Justua; ezdala ecer guertatcen berac nai edo permititugave; berac daquiala, ta ez guc, cer convenizaigun.

## GORPUTZAREN SENTIDUAC

- G.—Gorputzaren Sentiduac cembat dira?  
 E.—Bost Jauna.  
 G.—Cein dira?  
 E.—*Lenengoa*: beguiaquin ecustea, ect.
- [59] G.—Certaraco Jaungoicoac eman diztquigu beguiac, ta gorputzeco beste Sentidu, ta parteac?  
 E.—Guciaquin beraren Magestadea alabatceco, ta gauza gucietan servitceco.

## ANIMAREN AALMEN EDO POTENCIAC

- G.—Cembat dira Animaren Potenciac?  
 E.—Hiru Jauna.  
 G.—Cein dira?  
 E.—*Lenengoa*: Memoria, etc.  
 G.—Certaraco emandigu Jaungoicoac Memoria?

E.—Beraren Magestadeaz, ta eguinditzquigun mesedeaz oroitceco.

G.—Certaraco Centzua, edo Entendimentua?

E.—Jaungoicoa ezagutceco, ta beraren Magestadeagan pensatceco.

G.—Certaraco Vorondatea?

E.—Bera amatceco beradanagatic gautza gucien gañean: ta gueren lagun proximua beraren Magestadeagatic.

### ESPIRITU SANTUAREN DOAIAC

G.—Espiritu Santuaren doaiac cembat dira?

E.—Zazpi Jauna.

G.—Cein dira?

E.—*Lenengoa*: Jaquinduriaco Doaia, etc.

G.—Cer dira Espiritu Santuaren Doaiac?

E.—Dira Espiritu Santuac gracian daudenai graciaz ematen ditzen sari, edo erregalo vorondatezco bazuec: au da zor ez diela eguitenditzen mesede preciatu bazuec; beragatic Jaungoicoari beti escatubeardio-gunac.

G.—Doai oen artean cein da bearren deguna?

E.—Jaungoicoaren bildur Santuaco; cergatic Cristavaren perfectio eguiazcoraco cimendua dan: beragatic Jaungoicoac Mundu onetan [60] eman aldizaquegun castigoric andiena da ez ematea doia preciatu au.

Espiritu Santuaren doaiac dira:

1.<sup>a</sup> Jaquinduria da gu perfectoac eguiteco zutcencen degula gure vizitza ta obrac Jaungoicoaren gloriara; cergatic jaquinsuac daquite beren azqueneco fiña, ta onetara zutcencea beren izate gucia.

2.<sup>a</sup> Entendimentua da Fedeco Misterioac barrundic aditceco.

3.<sup>a</sup> Consejua da Demonioaren engañuai aurea artceco.

4.<sup>a</sup> Fortalezac laguntcendigu peleatu, ta venzutcen guere etsaiac dacazquiguen tentacioac.

5.<sup>a</sup> Cienciac eracastendigu Jaungoicoaren vorondatea icasi ta eguiten.

6.<sup>a</sup> Piedadeac eguitendu Jaungoicoari devoto, eta ovedienteac izatea.

7.<sup>a</sup> Beldurac servitcendigu becatutic alde eguindezagun.

### ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAC

G.—Cembat dira Espiritu Santuaren frutuac?

E.—Amabi, Jauna.

G.—Cein dira?

E.—*Lenengoa*: Caridadea, etc.

G.—Cer dira Espiritu Santuaren frutuac?

E.—Dira Espiritu Santuac berac ematen dituan gauza chit estimagarri bazuec: Dira berenez Jaungoicoaren amorio ta gracion dagoalaco señaleac onen Jabe eguitenduana; bada nola Arbola frutuetatic ezagutcendan; ala Jaungoicoaren gracion daudenac ere ezagutcendiru frutu oetatic. Baña eguiac ecin errevalacio, edo Jaungoicoac aguer-tu bague iñorc jaquindezaque dagoan edo ez Jaungoicoaren gracion. Ocer gauza icaragarria, ta beti humillatu beargaituana!

[61] BIENAVENTURANZA EDO ZORIONAC

G.—Cembat dira Bienaventuranza edo Zorionac?

E.—Zortci, Jauna.

G.—Cein dira?

E.—*Lenengoa*: Zorionecoac Espirituz pobreac, etc.

G.—Cer dira Zorion oec?

E.—Vertuteen obraric onenac; ta Espiritu Santuaren doai estimagarri bazuec.

G.—Ceñiñ dira Espirituz bearrac edo pobreac?

E.—Jaungoicoaren amorioz, ta beren naiac mundu onetan pobre izan naidutenac: emengo honrra ta aberatztasunic chiquiena ere izan nai ez dutenac.

G.—Cein dira Mansoac?

E.—Humillac, ta bigun, edo gozoac iraric ezdevenac, ezta ere casi iramugitceric ceñac ofendituac izan arren gucia daramae pacienciaz Jaungoicoaren amorioz. Onelacoac izango dira lurraren jabe; bereganatuco due betico gloria.

G.—Nola izango dire lurraren jabe?

E.—Beren buruen jabe izanic.

G.—Ceñiñ dira negar eguitenduenac?

E.—Gustoac vtcitcendituenac, izan arren chiquiac, ta licitoac.

G.—Cein dira Justiciaren gose, ta egarria debena?

E.—Aleguiñaz eren obligatcio guciac cumplitcendituenac

G.—Cein dira Misericordiatsuac?

E.—Guciaquin erruquitsu diranac.

G.—Cein dira viotz garbidunac?

E.—Dira passio gucietan mortificatcendiranac.

C.—Cein dira paqueosuac?

E.—Berequin, ta besteguciaquin paquean daudenac.

[62] G.—Cein dira justiciagatic padecitcen debena?

E.—Justiciaren aldera daudenac sendo, perseguituac izan arren.

G.—Cergatic derizte bienaventuranza edo Zori onac?

E.—Cerron oetan dagoan Mundu onetaco Zori ona; ta beste Mundu-coaren esperantza.

M.—Jaungoicoac ara eraman gaitzala. Amen.



EGUNOROCO CRISTAVAREN EGUITECOAC  
CONSEJUAC BEZELA

Goitcean jaiquitcean vr bedecatua artu, belaunico jarri cñatu, ta hitz oiequin, edo bacoitzac daquianaquin, Jaungoicoari encomendatu beardu.

*Lenengoa:* Nere Jauna eta Jaungoicoa, esquerrac ematen diozcat, cerren gau onetan gordenaban. Aita gurea ta Ave Maria.

*Bigarrena:* Jauna esqueintcen dizut nere lan guciac, ta erregutcen-dizut zure izen. Santuaren gloriaraco zutcendizazula. Aita gurea, ta Ave Maria.

*Irugarrena:* Jauna, arren gaur, ta beti gordenazazu becatu guctic. Aita Gurea. Ave Maria, Credo, Salvea, ta Aingueru Guardacoari beste Aitagure, ta Ave Maria bat.

Egun bitartean gogoratu Jaungoicoa beguiru dagoala: Aingueru guardacoa ere bai, cer gogoan, hitzqueta, ta eguitecoetan zabiltzan. Baita ere oroitu Jesu Cristoren neque, ta travajuac; Ama Santissimaren penac; ta eguindaco pecatuen Damuarequin, eguin acto Contriciocoac. Bacoitzac bere estadu edo oficioco gurutcea, ta nequeac eraman bearditu Jaungoicoaren icenean.

[63]

AVE MARIACOETAN

Goicean Jesu-Cristoren Erresurreccioa pensatu. Eguardian aren Passioa; ta illunabarrean Encarnacioa; ta bacoitcean iru Ave Maria erre-zatu; albada belaunico irabazteco Indulgenciac.

OERACOAN

Urbedecatua artu, belaunico jarri, cñatu, ta esango du.

*Lenengoa:* Nere Jauna, ta Jaungoicoa, esquerrac ematendizquizut, cerren egun onetan gordenazun. Aita gurea, ta Ave Maria.

*Bigarrena:* Escatcendizut Jauna: arren emandeguidazula, gaur eguinditudan becatuen ezaguera, ta barcadizquidatzula, Conciencia piscabatean, bada ere gau oro examinatu Confessoraco esanzan moduan, ta guero Acto Contriciocoa. Aita gurea, ta Ave Maria.

*Hirugarrena:* Erregutcen dizut Jauna gau onetan, ta beti libratnazazula etsaien engañuetatic Amen. Aita gurea ta Ave Maria, Credo, Salvea, ta Confessio generala.

*Azquenic:* Aingueru guardacoari Aitagurea, ta Ave Maria: ta oeratu guero, modu oean oean ceartu, bada oea da Sepulturaren ichura; ez pensatu Munduco zoraqueri ta gaucetan; baicic zure viotza bitu Jesu Cristori escatcera lagundu deizun gau onetan, ta vicitceran gucian: Vir-

63.18. *bitu:* cf. Azkueren hiztegia s.u., Zumairako; esanahi berarekin Tx. Agirreren adibide bat DRAE-en (s.u. III).

giña Santissima, Aingueru guardaco, Zure icen devocioco Santuai erregutkendiezula.

[64] Otorduetan Maia beardu bacoitzac eracustendanez Cristavaren antic badu bedicatu, ta Jaungoicoari esquerrac eman ondoren.

Hill oro Sacramentu Santu Confessioco, ta Comuniocora ondo prestatu allegatu, batez ere Ama Virginaren egunetan.

### EMEN SEGUITCENDIRA

Maieco bendicioa.

Loretoco Letaniac.

Meza laguntzeco modua. Aingueruen officioa.

*Azquenic:* Nere cristau maitea. Esandanaz bat Damu izango ez dezun moduan vitci; bada azquenac cantatcendu deseatcendizudan gloria.

*Ala izandedilla*